

uk

202. zenbakia / 2011ko urriaren 7a





GETXON AKADEMIAK ERE EUSKARAZ



Ikasturte honetan, ume, gazte zein heldu getxoztarrek baduzue herrian bertan hainbat ekintza euskaraz egin ahal izateko aukera: eskola-laguntza, musika, dantza, eskulanak, pintura-tailerrak, euskara-ikastaroak, etab. Jarduera horiek guztiak euskaraz eskaintzen dituzten akademien zerrenda daukazu hemen; informazio zehatzagoa jasotzeko, sar zaitez **www.getxo.net/akademiakeuskaraz** helbidean.

Eskola-laguntza: Abant, Aula 10, Bidean akademia, Cima Didaktika ikasketa-zentroa, Colectivo Romo akademia, Edison akademia, Elipse ikasketa-zentroa, Ernesto ikas-eta-zentroa, Landeta akademia, Nagore Etxebarri akademia, Salsidu akademia

Euskara-eskolak: Bai & By, Casa Italia, Concord Idiomak, International don't, Quebec Idiomak, Treland akademia

Musika-eskolak: Andres Isasi, Riff, Soinu


Pintura, eskulanak eta dantza eskolak: Arteskola, Dantzarte, Talde zeramika, Ziri-marra arte-tailerra

Umeentzako euskaltegiak: Algortako Uztari, Areetako Uztari, Getxoko Uztari



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Arrantza.
7. LEHEN ETA ORAIN. Lamiako.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Pedro Elordui.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Urdulizko indartsuak.
28. ARGAZKIA. Ibarbengoa geltokia (Getxo).
30. BERBETAN. Telmo Esnal.
34. FOTOGRAFIA. Elker Azqueta.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zineuskadi.
43. MUSIKA. Marmoka Baltzak.
44. LIBURUAK. Cafe Bilbao antzerki liburua.
45. KIROIAK. Basakick.
46. ELKARRIZKETA. Andoni Txasko.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Lau gaztagaz osatutako trufa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. San Inazio Eskola, 1955-1956.
54. AITORMENAK. Aitziber Garmendia

Azala: Elker Azqueta

www.ukaldizkaria.biz



30 Telmo Esnal

Berbetan

Pantaila handira eraman ditu barriz ere Esnalek euskaldunon eguneroko istorioak baina umore onez.



11 Pedro Elordui



54 Aitziber Garmendia

Clio Industrial 19 EURO egunero



Kango luzea 35 EURO egunero



Kango 25 EURO egunero



Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Leihatila

> Pedro García Larragan

Kresala

ETBko 'Kresala' saioari “urrezko antena” saria emon diote. Saria nahiko garrantzitsua da, eta badakizue saio horretan nagoela ni aurkezle moduan. Baina ez nator hona nire buruari publizitatea egitera. Saio horretan parte hartzen dutenentzako omenaldi txiki bat izan nahi du gaur idazten dudan zutabe honek. Lehengo, produktoreari: Koldo Anasagasti. Bera gabe ez zan saioarik izango. Gero, zuzendariari; Agustín Herranz. Eta gero, besteak bezain garrantzitsuak, Luis Barreirori, zuzendariordea denari. Berarenak dira saio honen meritu asko eta asko. Eta zer esan ere, kamara haundia denari, Eukeniri, edo/ta soinu tekniko paregabea denari, Dabid 'txiki'ri. Lupe Odriozola eta Maixa Lizeagarentzako ere ohore: eskainitako lan onak zer ikusi haundia dauka 'Kresala'ren arrakastarekin. UK Aldizkariaren bitartez publikoa agertu nahi diet neure estimatze haundia. Ez dakit publikoan esateko beste aukerarik izango dudan eta. Zorionak eman dizkiguten danei, eskerrik asko!!

gu geu

Gure egutegia

Ez dakit zuek, baina UK-kook 28 orduko egunak behar ditugu, 10 orduz beharrean egoteko beste gainontzeko 18ak lo egin, etxeakoakaz lasai bazkaldu, lagunakaz barre egin eta bakardadeaz gozatu ahal izateko. Ez dakigu nork asmatu zuen gaur egungo denboraren antolaketa, baina ziur gaude ez zuela bere eskualdeko herri aldizkarian zein herrigintzako beste edozein esparrutan behar egiten. Urriaren atarian hartuko duzu etxean edo lantokian 202. zenbaki hau. Hala ere, irakurtzen duzunean tiradun kamiseta eta gona edo praka motzak izango dituzu soinean seguruenera. Izan ere, irailaren 22ak ez zuen udagoienik ekarri. Hala ere, egun eguzkitsu zoragarri hauetan eskualdeko hondartzak ordutegi askeko surfistek betetzen dituzte soilik. Irakurleok UK aldizkarian aldarrikapen proposamena daukagu: herria altxa dezagun eguraldiaren arabera antolatutako egutegi eta lanaldiaren alde. Munduko langile, sindikatu eta borrokalari oro altxa dadila “udagoien-berri” honetako tenperatura epelak herriko tabernen terrazetan, mendian zein hondartzan goza ditzagun. Gu ere “suminduta” gaudela esango diogu munduari! Beharrezkoa bada, neguko egun ilun eta euritsuetan egingo ditugu ordu estrak!

UK-ko lantaldea

Iritzia

UK-ko kolaboratzailea den Gabi Basañez militante internazionalista getxoztarrak, herrien elkartasunaz eta euskal internazionalisten kontrako epaiaz idatzi digu.

Internazionalismoa

Urtebete da, Askapenaren aurkako ope-razio legez irudikatu zen hartan, armaz ondo hornitutako ehundaka polizi espai-niarrek 7 lagun Internasionalista atxilotu gintuztela, beste lau komisaldegietara dekla-ratzera deitu eta osotara 14 lagun kriminali-zatu gintuztenetik, Euskal Herritik beste herriekiko elkartasuna internazionalista prakti-kara eramateagatik. Horietarik bostek kar-tzela ezagutu genuen, orain kalean garen arren, epaitegietan egu-nero sinatuz, estatu espainoletik irteera debekaturik eta noiz izango den ideiarik ere ez dugun epaiketa bati begira. Orain artean behintzat, 12 urteko kartzela aldirako arris-kuan gara bostok, Irailaren hasieran Pablo Ruz epaile espainolak Madrileraino joana-razi eta gero, komunikatu zigunez. Sasoia da gure iritzia plazaratzeko. Eta hasi gara sinadura biltze kanpaina bat egi-ten (internazionalismoaezdelitua.word-press.com), Euskal Herritik kanpo eta

Euskal Herrian bertan elkartasun internazio-nalistaren alde eta berauren kriminalizazioa-ren kontra. Geuk onartzen dugun epai baka-rra aske gelditzea da eta gure izenak eta jar-duera garbitzea da, internazionalismoan ez delako inolako deliturik. Harro gaude elkartasun internazionalis-taz, mundu duinago eta bideragarriago bat lortzeko ezinbesteko tresna baita. Che Gebarak esan zuen legez “*Munduko edozein lekutan edozeinek jasotako injustizia barne-barnean sentitzea*” eta “*munduko herriak mai-tatu eta herrien mundu baten alde borroka egitea*” ez da delitua, beharra baizik. Eraso hau gertatu da Euskal Herriak mende asko daramalako 2 inperio handik zapalduta. Gauzak horrela, gure herria men-deratzeko, kosta ala kosta beren inperioaren parte ezartzeko, giza eskubideak bata bestea-ren atzetik zapaltzen dituzte: eskubide zibil eta politikoak gure kasuan bezala bai, baina baita komisaldegietan torturak, kartzeletan mendekuak, bizi osorako kartzela zigorrak, desagerpenak eta erailketak, alderdi politiko-en eta beste hainbat sektoreen ilegalizazioak... Euskal Herriak, ordea, segitzen du auto-determinazio eskubidearen aldeko indarrak biltzen eta guk uste dugu horixe dela biderik zuzenena gure herritik munduko herrie-kin batzeko. Palestina, Kolonbia, Kurdistan, Kuba, Països Catalans, Eire, El Salvador, Venezuel-a, Hego Afrika, Sahara, Sardinia, Txetxenia, Maputxe Herria... Euskal Herria: elkartasuna eman eta jaso behar dugun herriak gara, bakoitza bere kolorearekin, bakoitza bere bidearekin, autodeterminazioa, burujabetza eta elkartasuna dira gizon-emakume libre- ez osatutako herrion mundu bat eraikitze-ko bide bakarra. Jarraituko dugu beste herrien azalean jartzeko ahalegina egiten, eurak ere geurekin azaldu daitezen. Den lekutik dela. Arriskuak arrisku. Gora herrien arteko elkartasuna.

Gabi Basañez
(Euskal internazionalista auziperatua)



ALGORTA, 2011KO URRIA

Txibitan.../ Irudi ederra ekarri digu Asier Mentsakak. Algortako Arrigunaga hondartza ingurua ikusten da eta Ezkerraldea. Uda luzatu da aurtten eta ez da zaila izan hondartza irudiak lortzea sasoi honetan, oraingoan baina, isasoaren beste ikuspegi bat erretratatu du argazkilariak, arrantzarena. Peña piloto muturrerantz kokatzen dira askotan lurreko arrantzaleak, zer edo zer harrapatuko. Baina ondo behatuz gero, hondoan dauden txalupei erreparatuko diezu. Oraingoan ez dira dirudunen ontzi handiak, arrantzaleena baizik; txibien denboraldia hasi da eta kostatik oso gertu dabilrta. O / Argazkia: Asier Mentsaka

Uribe Kostako bidegorri sarea egokia dela iruditzen zaizu?



o Sopela

Itziar Fernandez

Badago sarerik ala? Oso txarto dago. Badagoz zati batzuk, baina oso leku txarretan dauz. Herri bate-tik bestera joateko ez dago, herri barruan ibiltzeko ere ez... Alaba eskolara joaten da bizikletaz, baina



o Urduliz

Elena Dufur

Bidegorriak oso txarto daude... Lehen Portugaleten bizi nintzen, eta Santurtzin egin zutenean, ez zuen inork erabiltzen. Butroeko bidea egiten dut nik bizikletaz: Urdulizetik Mungiaraino, eta buelta Gatikatik,



o Algorta

Gorka Rodriguez

Beste leku askotan baino askoz hobeto daude, baina halan da be hobe daitezke. Bizikletaz baino, ni korrika joaten naz bidegorri parean, espaloitik. Sopelako hondartzetatik Barrikaraino luzatuko nuke, Goierri-



o Sopela

Asier Basabe

Ez dut erabiltzen, baina zenbat eta bidegorri gehiago egon, hobeto. 6 eta 7 urteko umeakaz espaloian joaten naz, errepidea arriskutsua delako, kontuan hartuta kotxeagaz zelan doazen (edo zelan goazen...). Herri barruan ibiltzeko bidegorri bat



o Sopela

Josetxu Perez

Nik ez dut bizikleta erabiltzen, baina nire alabak bai, eta bidegorri-sarea oso eskasa da, nahiko txapuza: bidegorria dago eta bat-batean errepidea, gero barriro bidegorria... Bizikleta ostabere hartuko nuke, baina hiru gurgilduna izan beharko



o Gortiz

Nerea Aldekoa

Nahiko eskasa dela iruditzen zait. Plentziako itsasaldean egin dute orain dela gutxi, baina portutik astillerora ere egin beharko litzateke, adibidez. Espaloian joaten gara bizikletagaz, baina helduak beti kexaka ibiltzen dira...



[lehen]

GETXO UDAL LEBURATEGIA



[orain]

ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / LAMIAKO

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > behiak



Testua: **Miren Loizaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *pasaia*ko plazatik

Txorien txio-txio
ta kantu artean
ke beltzik ez da sortzen
baserri partean
hausnar egiten dugu
gustora bakean
gizakiak urruti
dauden bitartean

Gure zelai berdea
lurra ta fardela
porlanak estaltzea
ez al da krudela?
Ea ohartzen diren
behar den bezela
eraiki nahian dena
suntsitzen dutela!

Zenbat arazo eta
zenbat tira-bira
Gizakiek gehiegi
hasarratzen dira
lasaiago egongo
lirateke tira!
Eurak ere horrela
biziko balira!!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia



DESKARGATU DOAN EUSKERAZ
www.cianoplan.es/baliabideak



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

gazte martxa > Plentziatik Sopelara 22an



Hitzaldiek eta musikak ez dute hutsik egingo

UKmartxa egingo dute zazpigarrenez eskualdeko gazte independentistek, urriaren 22an. “*Gazte botereaz independentzia*” dio aurtengo leloak eta egun bakarra izan arren, zereginik ez da faltako. Ibilaldia Plentziako Udaletxe plazatik abiatuko da 09:00etan. Lehen geldialdia egingo dute Barrikako pilota-lekuan, Euskal Estatuari buruzko hitzaldia entzuteko. Sopelako peñoian ere

lotuko dira eta tailerrak egingo dituzte 13:00etan. Handik Udaletxe plazaraino gerturatu eta bertan izango da bazkari musikatua. Arrastian poteoa egingo dute herriko tabernetan, txarangak lagunduta. Ekitaldia 20:00etan hasiko da eta ondoren eskainiko dute kontzertua Umore Txarrez, Hamaiketan eta Ihesbide taldeek. Bonoak salgai ipini dituzte ohiko lekuetan. ○

Eztabaida gunea > Villamontera aldatu da

Algortako Villamonte plazara aldatu da Eztabaida Gune Antiautoritarioa. Orain hiru urte sortu zen proiektua, Uribe Kostan kontrainformazioa eta kultur-ekintzak lantzea helburu. Euskal Herria eta Amezti kaleetan egon da orain arte, Villamonten hemendik aurrera. Beti eskaini dituzte fanzineak, liburuak, bideoak edota musika, baina orain eskaintza zabaldu gura dute, eta asmoa da “*ezta-*

baida eta elkartaratze gunea sortzea jendarte eraldaketa lortzeko, jardunaldi, hitzaldi, tailer eta argitalpenen bidez”, eta hori dena “*ikusuntu antikapitalista eta antiautoritario*”. Horregatik, pertsona zein kolektibo oro animatu dute proiektua bere egiten, lokaleko atak guztiei zabalduz, “*bururatzen zaien edozein gauzatarako*”; irailaren 29an inauguratu zuten Eztabaida III. ○



www.eztabaida.org



Info+: www.cianoplan.es/recursos

cianoplan > PDFak egiteko sistema barria

PDF artxiboak sortzeko bertsio barria garatu du Getxoko Cianoplan inprenta digitalak, euskaraz erabilgarria. Testu-prosezadore, kalkulu orri, datu-baseen kudeatzaile, filmina aurkezle edo AutoCAD programakaz sortutako dokumentuak PDF bihurtzeko *software*-aren bertsio barriak eta Windows 7, Vista eta XP programa kaleratu barriakaz erabilgarria da. Beraz, inprimagailu birtuala

kontsidera daiteke: inprimatzeko aukera eskaintzen duen Windows-eko edozein programagaz PDF dokumentuak sortzeko. Inprentakoek esan dutenez, “*helburua da bezeroari lana erraztea, ama-hizkuntzan lan egiteko aukera eskainiz eta bulegotik mugitu barik kalitatezko inprimaketak bermatuz*”. Horregatik doan deskarga daiteke www.cianoplan.es/recursos gunean. ○

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

IZARREN DISTIRA

REVOLTA PERMANENT KONTZERTUAN

KASTINAK URRIAK 26 ETA 27

GALA AZAROAK 6 ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLAN

19:00
etan

EMAN IZENA!

info@izarrendistira.com - 663 083 736

SARIAK

Euskarari Saria



BIDEOKAMARA BANA TALDEKIDE BAKOITZARI

Ikuskizunari Saria



MP5 BANA TALDEKIDE BAKOITZARI

URRIAK 16 REVOLTA PERMANENT TALDEKO BIDEOKLIPAREN GRABAKETA



Getxo

bizi ezazu



EUSKARA BIZI



[erretratua]

“14 urtegar Urdulizetik Laukizera joaten ginen oinez, asto gaineko hockey-an jokatzan”

Pedro Elordui Otegi > Urdulizko super-indartsuen kapitaina

‘Mila duro ezetz!’. Horrela hasi ohi dira gurean tradizio horren handikoak diren apustuak eta desafioak; batzuentzat, euskaldunon nortasunaren nahitaezko ezaugarri direnak. Pedro Elordui urduliztarrak nahikotxo daki horretaz. Ayoberri sagardotegian behar egiteaz gain, Urdulizko super-indartsuen kapitaina ere bada. Aurtengo jaietan, Laukizko indartsuen aurkako desafioa ospatu dute, gizon-probetan: *“Gizon-probetan aritzea poteak zerbitzatzea baino gogorragoa da, hiru aste eman dodaz entrenatzen!”*. Super-indartsuen taldea orain lau urte sortu zuten: bere garaian ‘Iparralde’ sokatira taldea osatzen zuten sei lagun batu eta asto baten aurka desafioa egin zuten, eta irabazi gainera: *“Asto ederra zen baina!”*. Euren bigarren desafioa aurtengoa izan da, eta Laukiz hartu dute mendea, txikitako errebantxa hartuz: *“14 urtegar Urdulizetik Laukizera joaten ginen oinez, asto gaineko hockey-an jokatzan. Beti irabazten ziguten, baina tranpak egiten zituztelako”*. Elorduiaren arabera, euren ez dute tranpa beharrik izan txapela irabazteko: *“Gu legalak gara, baina tranpak egiteko gogoagatik ez zen izango!”*. Momentuz desafio biak irabazi dituzte, baina desafio gehiago jasotzeko prest daude: *“Beste herriren bat animatzen bada, prest gaude, bazkaria eta giro ona dagoen artean!”*. Uribe Kostako herriak... ausartuko ote zarete urduliztarren hordagoa erantzuten? ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Laguntzak kontratazioetarako

Udalak diru-laguntzak emango dizkie Getxoko bizilagunak kontratatzen dituzten komertzio eta ostalaritza establezimenduei; 120.000 euro inbertituko du sektoreari laguntzeko

Getxolan Ekonomia eta Enplegu Sustapenerako Zerbitzuaren bidez, 120.000€ inbertituko ditu Udalak Merkataritza eta Ostalaritza Enpleguaren alde izeneko kanpaina. Zati bat Getxoko langabetuak kontratatzeko izango da, eta bestea, prestakuntza zein Enplegu Azokarako.

Beste behin Merkataritza eta Ostalaritza Enpleguaren aldeko programa abiatu du Udalak. Sektorea bultzatzeko diru-laguntzak emango ditu Getxolan Ekonomia eta Enplegu Sustapenerako Zerbitzuaren bidez. Orotara 120.000 euro inbertituko du xede horretan, horietatik 90.000 euro merkataritza eta ostalaritza enpresetara bideratuko ditu zuzenean, Getxon errolatuta dauden langabeak kontratatzeko. Beste 30.000 euroak enpresen eta langabetuen trebakuntzarako eta Getxoko III Enplegu Azoka egiteko erabiliko ditu.

Diru-laguntzei dagokienez, langabetuei hiru hilabete edo gehiagorako kontratuak egiteko erabiliko dituzte eta urriaren 1etik azaroaren 14ra bitartean egin beharko dira. Zehazki, jardun osoko hiru hilabete edo gehiagorako kontratuentzako 2.000 eurokoak izango dira laguntzak, eta 2.500 eurokoak 6 hilabeteko edo gehiagoko kontratuentzat. Gainera, emakumeak edota 45 urte baino gehiago dituzten langabetuak kontratatuz gero, beste 250 euro gehiago emango dizkiote enpresari.



Enplegu Azoka egingo dute urriaren 28an, Faduran

Trebakuntza arloan ere eskaintza egingo dute: erakusleho-apainketa, bezeroakaz harremanak hobetzeko tresna barriak, *personal shopper* delakoa eta beste

90.000 euro kontratazioarako izango dira, eta beste 30.000 euro langileak trebatzeko

gai batzuri buruzko prestakuntza eskainiko dute, *“negozioen irudia eta kudeaketa hobetzeko helburuagaz”*. Euskomer, CEC, Eusko Jaularitza eta Europako Gizarte Funtzak ordaindu dute hori dena. Baina sektorean lan egin gura duten langabetuek ere prestakuntza hobetzeko aukera izango dute, saio informatiboen bidez.

Bestalde, hirugarren Enplegu Azoka

egingo dute urriaren 28an, Faduran. Langileak kontratatu behar dituzten enpresei eta sektore honetan lan egin gura duten pertsonen zuzenduta dago; izan ere, *“langileak behar dituzten enpresak eta langabetuak harremanetan jartzea da ekimenaren helburua”*. Lan egin gura dutenek enplegu eskaintzetarako izena eman ahalko dute azokan, hautaketa-elkarrizketetan; Getxolaneko teknikariek kudeatuko dituzte.

Udalak azaldu duenez, 2009 eta 2011 bitartean 61 pertsona kontratatu zituzten eta 200.000 eurotik gora inbertitu zuten programan, eta langileen %67k *“lanean dihardu gaur egun”*. Gainera, 60 pertsonen formakuntza eskuratu ei zuten eta 172 lagunek parte hartu zuten Enplegu Azokan. ○

Info+: www.getxo.net/getxolan

Futbolearen euskaraz

Hitzarmena egin dute Udalak eta Kimet Sport-ek



Koikili Lertxundi futbolariak hainbat entrenamendutan parte hartu zuen iaz

Futbol entrenamenduetan euskararen erabilera sustatzeko bi urterako lankidetzaz-hitzarmena sinatu dute Udalak eta Getxoko Kimet Sport enpresak, Gehitu Kirola egitasmoan beste urrats bat eginez. Ondorioz, udalerriko futbol entrenatzaileen esku ipiniko dute euskarazko materiala eta formazioa eskainiko zaie.

Beraz, Udalak konpromisoa hartu du Kimet Sport-ek futbol entrenamenduak planifikatzeko eta egituratzeko idatzitako metodologia eta webgunea euskaratzeko. Kimet Sport-ek, bere aldetik, 25 entrenamendu jasotzen dituen programazioa eskaini die entrenatzaile euskaldunei formazio saio bitan.

Baina ez dira mugatuko entrenatzaileei laguntzera: futbol taldeei eta, orokorrean, irabazi asmorik ez duten gainontzeko

kirol erakundeei metodologia erabiltzeko aukera emango diete, entrenatzaileei emango dizkieten erabiltzaile kode eta pasahitzaren bitartez.

Udalak jakinarazi duenez, gaur egun 946 ume eta gazte parte hartzen ari dira euskarazko entrenamenduetan: azken ikasturtean jarraitutako 83 entrenamenduetatik, 60 euskara hutsez egin zituzten eta beste 18tan batez ere euskaraz mintzatu ziren.

Helburua bete guran, entrenatzaileentzako sentsibilizazio saioak antolatu dituzte orain arte, kirolari ezagunen partaidetzagaz, besteak beste: Koikili Lertxundi futbolaria, Sebastian Gonzalez pelotaria, Aitor Burgoa igerilaria eta Naiara Gomez, Izaskun Aranburu eta Oier Aizpurua piraguitakaz. ○

BIDEGORRIA KENDUKO DUTE ZIENTOETXEN

Azkorriko hondartzarako bidegorria kentzeko agindu du Imanol Landa alkateak, *“segurtasun arrazoiak eta auzotarren artean sortutako eztabaidaren ondorioz”*, Udalak adierazi duenez. Erabakiagaz batera, agintari eta teknikariak alternatibak aztertzen hasi dira. Gainera, *“auzotarren eta inplikaturako gainontzeko eragileen iritzia jasoko dute eta gaia Ingurumen Forara eroango dute, eztabaida dezaten”*. Protesta asko eragin du bidegorriak, autobusak bi noranzkoetan aldi berean pasatzeko tarte nahikorik ez baitzegoen.

GAZTELEKUKO IKASTAROA PREST

Algortako Gaztelekuak ikastaroen katalogoa ateratu du eta parte hartzeko izena eman daiteke. Sei ikastaro eskainiko dute ikasturte honetan, horietako bi bakarrik euskaraz; denak izango dira doan. Izena emateko hainbat aukera dago: Gazte Bulegora deitu (944 660 353), gaztebulegoa@getxo.net helbidera mezua igorri edo Gazte Informazio Bulegora hurbildu (Tangora Etxea, Algortako Etorbidea, 98).

Info+: www.getxo.net

MASKULINITATEA BARRIRO AZTERTUZ

“Maskulinitatearen identitateei buruz gogoeta egiteko” emango du Udaleko Berdintasun Zerbitzuak ‘Maskulinitatea Birpentsatzen’ tailerra, gizonei zuzenduta: identitateak nola sortzen diren, zer ekartzen diguten eta zelako ondorioak dituzten hausnartuko dute. Urriaren 19an hasi eta ordu biko sei saio egingo dituzte eguaztenetan, 19:00etatik 21:00etara, Martikoena kaleko 16.ean. Mikel Otxotorena On:Giz elkarteak kideak dinamizatuko du eta doakoa izango da. Udaleko Berdintasun Zerbitzuan eman behar da izena (Foru kalea, 8).

Info+: 944 660 136 eta berdintasuna@getxo.net

 **naturlan**

Lorezaintza
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros
“Amumak”

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako Izenak
Alzheimer, 3.Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

Ibone Landa eta Agurtzane Olaiz > Sormena lantzeko tailerra

“Sormena gure barruan dago jaiotzetik, bidea markatzen digu bizitzako alor guztietan”



Urri akabuan emango dute tailerra Algortan

Musika maistra da Agurtzane Olaiz Egurrola, Arte Ederretan lizentziaduna Ibone Landa Jauregi. Musika, plastika eta dramatizazioa lotuko dituzte sormena lantzeko *Kaotikoa* delako tallerrean. Betiko ametsa dute gai horretan sakontzea eta orain urtebete hasi ziren tailerrakaz. Egizuk arrasti bateko saioa antolatu du urri akaburako, Algortako Aldai Patronatuan. Sendigaz ere egin zuten ikastaroa eta interesa piztu zuen arte-terapiaren barruan. Oraingoan ere euskaraz egingo dute eta sormena landu gura duen guztiak parte har dezake, ume zein heldu.

—Kaotikoa izango ei da sormena lantzeko tailerra?

—Sormena da gure ardatza. Ez da artea lantzea, ez musika, ez plastika, baizik eta sormena. Sormenaren abiapuntua kaosa da, hortik abiatuta sortzen dira ideiak bizitzaren arlo guztietan, ez bakarrik artean. Zerbait egin behar bada, lehenik kaosa gertatu behar da. Adibidez, armairu bat ordenatu behar denean, lehenengo hustu eta kaosa sortu behar da, ondoren eraikitzeko. Berbalagun talde honegaz lehen harremana izango denez, kaotikoa

izan behar dela pentsatu dugu. Gainera, helduentzako ere badenez, horrelako gai bat jendearengana nahiko erraz heltzen da, oso erakargarria da-eta. Artea pertsonen barruan dago hasiera-hasieratik; sormenagaz jaiotzen gara, hortik atera eta jarraitu beharreko bidea markatzen digu, alor guztietan. Ateratzen ditugun etekinak eta emaitzak oso onak dira bizitzan. Sormena beti lotzen dugu arteagaz, baina eskola kurrikulumak ikusiz gero, ohartzen gara sormena lantzen dela umeen heziketan, bizitzako edozein egoeratan

balio duelako.

—Edozein arlotarako balio duenez, edonork parte har dezake?

—Edozein adin, sexu edota ikuspegi daukanak parte har dezake, baina kontuz! Ez dugu edozer onartuko: ez dugu onartuko ikusi gura ez duenik, bere burua ireki gura ez duenik, ez kanpotik begira gertuko denik; izan ere, ez dute arobetxatuko tailerra. Gauza barriak eta sorpresetarako prest etorri behar dute. Egia esan,

«Ez dugu onartuko ikusi gura ez eta burua ireki gura ez duenik»

ezagutzen gaituztenean nahiko harrituta lotzen dira, inork ez baitaki zehazki zertara datorren. Askotan uste dute eskulanak egingo ditugula, eta bai, margotzen dugu eta musikagaz ibiltzen gara, baina ez dugu trebetasunik ez teknikarik lantzen, ez dugu eskulanik egiten ez musika tresnak jotzen irakasten; guk sormena lantzen dugu.

—Lehenengoz emango duzue berbalagunakaz, baina egitasmo zabalago baten parte da?

—Aspaldiko proiektua da, gure ametsa. Arte Ederretan hasi ginen biak batera eta ondoren, bakoitzak bere bidea hartu zuen, baina asmoak oso gertu izan ditugu beti. Artearen barruan zegoela ohartu ginen. Artearen lantzeko ez da behar trebetasun berezirik, artearen bide bat da ideiak kanporatzeko eta hainbat diziplina biltzen du. Guk momentuz arte plastikoa eta musika erabiltzen ditugu adierazteko bide gisa. Algortan egitera goazena egun bateko egokitzen da, ikastaroa hilaibeteko da berez; zertzelada batzuk eskainiko ditugu, eta gainera, euskaraz. ○

Info+: www.egizu.org

Teatreroen garaia

Antzerki Jardunaldiak izango dira urriaren **14tik 23ra**: 10 antzezlan, **5 euskaraz**



Info +: www.getxo.net eta kultur etxeetan

Izan ala ez izan topikoagaz has genezake barri hau, baina hori baino askoz zabalagoa da antzerkia, horren adierazle izango dira Antzerki Jardunaldiak. Urriaren 14tik 23ra hamar antzezlan eskainiko dituzte Algortako zein Areetako Geltokia plazetan eta Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, bost euskaraz.

Gaitzertik inauguratuko ditu jardunaldiak *Udamina* obragaz urriaren 14an Algortan, doan. Esan bezala, euskarazko beste lau antzerki ikusi ahal da: Malas Companias taldearen *Oilaskoetxea* eta Kukubiltxoren *Leihotik mundura* hilaren 15ean, lehena Algortan eta doan, bigarre-

na Areetan eta 4 euroren truke; Hortz mugak *Libertia* antzeztuko du 16an eta Hipo eta Tomaxek, *Beldurraren Etxea* 23an, bata Algortan, bestea Areetako Geltokia plazan.

Gaztelaraz ere badago eskaintzarik: Markeliñek *Anomalia magnetica* antzeztuko du 21ean Areetako Geltokia plazan; Trapu Zaharrakek *Camping Renove* 22an, leku berean; Coloniales y salazones taldeak *Hienas relenas* 22an, eta Agerre Teatrok *¿Quien ha visto a Dulcinea?* 23an, azken biak musika eskolan. Gainera, Organiks taldeak *MANIATIC@s* eskainiko du urriaren 15ean, musika eskolan. ○

AZTERKETA PRESIO BARIK, IKASI EUSKARA

Hizkuntza eskakizuna eta azterketen presioagaz nazkatuta? Oraintxe duzu aukera euskara ikasteko gozatzeko moduko giroan. *Azterketaren presio barik* ikastaroa antolatzen dabilta, Berbalagun taldeetatik sortu zen ideia: mintzapraktika egin, gramatika eta landu, baina azterketaren presio barik. Algortako Jose Antonio Agirre euskaltegian elkartuko dira astean hirutan. Gutxienez 9 lagun behar dute taldea osatzeko. Ez itxaron eta apuntatu!

Izena emateko: **944 606 67** eta **687 543 200**

INDABADA PRESTATZEKO ASANBLADAK HASI DIRA

Badator Indabada Algortara, urriaren 29an ospatuko dute eta daborduko bilerak egiten hasi dira jaia antolatzeke. Astelehenero elkartzen dira Aldai Patronatuan, 20:30ean; gura baduzu, lekua egingo dizute. Gainera, aurtengo egitarauaren aurrerapena egin digute. Goizean hasiko da jaia, dianagaz. Biotz Alai plazan egingo dituzte herri kirolak, txotx musikatua, herri-bazkaria, jolasak e.a. Arrastian poteoa izango da Zpeiz Mukaki txarangak lagunduta, eta gauean, gaupasa Txorimalo Gaztetxean. Bazkaritarako txartelak ohiko lekuetan eros daitezke; zur ibili eta erosi amaitu orduko, iaz 600 lagun elkartu ziren-eta.

EUSKAL MAKILA BORROKA IKASTAROA

Euskal Herrian galtzearen zegoen borroka mota da makilarena, ezpatariet aurre egiteko teknika bereziagaz. Kirola egin eta kultura berreskuratzeko helburuagaz dabilta borroka kirol honen zaleak, eta aurtengoa ere, ikastaroa prestatu dute Getxon. Izena eman daiteke telefonoz, 656 798 622 zein 653 728 351 zenbakietara hots eginez, edo internet bidez, makilagetxo@gmail.com helbide elektronikora mezua bidaliz. Laster finkatuko dituzte saioen orduetgiak.

Izen-ematea: makilagetxo@gmail.com

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Aitor Cañibano > Travellin' Brothers musika taldeko kidea

“Herrian askotan joko bagenu zirkuitua erreko genuke, horregatik asmatu genuen *Bluenights*”

Bluenights kontzertuakaz jarraituko du Leioako Travellin' Brothers taldeak Kultur Leioan. Ez dira ohiko kontzertuak, Aitor Cañibanok eman digu berezitasunen eta eskuartean darabiltzan proiektuen barri.

—*Bluenights* kontzertuak hasiko dira.

—Bigarren denboraldia da, ikasturtean zehar bi kontzertu eman ohi dugu eta ohikoetatik desberdinak dira. Gu oinarrizko banda gara eta beste musikariak gonbidatzen ditugu gugaz jotzera; erdi inprobisatua da. Gainera, gonbidatuak bere musika ibilbideari buruz solasaldia eskaintzen du eta ikusleen galderei erantzuten die. Bukatzeko, blues eta jazz arloan dabiltzan eskualdeko musikariakaz *Jam Session* saioa egiten dugu. Oso polita izaten da eurentzat maila handiko musikariategaz jotzea, normalean ez baitaukat horretarako aukerarik.

—**Herritik kanpora ezagunak zarete, zer da Leioan jotzeko aukera izatea?**

—Guretzako oso garrantzitsuak dira kontzertu guztiak, bai Leioakoak bai beste herrietakoak. Baina gure herrian askotan jotzea ez litzateke ona, gure izena eta zirkuitua erreko genukeelako, horregatik asmatu genuen formatu hau: ez da



Urriaren 14an izango da ikasturteko lehen kontzertua, Mikel Azpiroz gonbidatuagaz

Travellin' Brothersen kontzertua, beste gauza bat da eta harrera oso polita dauka. Aukera oso polita da gure lagunakaz jotzea, mundu honetan denok ezagutzen baitugu elkar.

—**Disko bat ere grabatu barri duzue, ezta?**

—Duela hilabete pare bat grabatu genuen laugarrena, zuzenekoa. Bi kontzertu grabatu genuen Kultur Leioan, diskoa eta bideoa izango da. Big Band

bategaz egin dugu, 16 musikari aritu gara taularen gainean. Musika nahasten bukatu eta irudiak muntatzen gabilta. Kontzertuaz gainera dokumental bat ere sartuko dugu taldearen bizitzari buruz. Azaro edo abenduan kaleratuko dugu. Aurkezpena ere berezia izango da. Bestalde, AEBtan lehen bira prestatzen gabilta, lehiaketa bat irabazi dugu eta Euskadi ordezkatzeko dugu mundu mailako banden arteko batallan. ○

Avanzada, estaliko al dute?

Aldundiak errepidea estaltzeko **alternatibak baloratuko ei ditu** onena aukeratzeko



Duela 12 urte erabaki zuen Udalbatzak Avanzada estaltzea

Avanzada errepidea eraikitzeko, zabalatzeko eta egokitzeko proiektua idatzeko laguntza teknikoa kontratazeko lehiaketa abiatu du Bizkaiko Aldundiak; 2,3 milioi euro kostako da urrats hau. “*Konponbiderik egokiena antzemango*” dute: “*alternatibak alderatu eta onena*” aukeratzeko duela esan du Aldundiko Lan Publiko eta Garraio sailak. Halere, oraingoz aurretramiteok garatzeko baimena besterik ez dute eman.

Orain 12 urte eskatu zuen Leioako Udalbatzak Avanzada estaltzeko, Bilborantz ahalik eta zatirik luzeena. Aldundiko teknikarien arabera, ordea, oso zaila litzateke lan hori gauzatzea,

Euskaltegiaren aurreko zati azpian erreka igarotzen delako. Diotenez erreka desbideratu beharko litzateke eta asko garestituko luke lana.

Aldundiak 300 metroko tartea molatzea aurreikusten du, baina auzokideak ez datoz bat asmo horregaz. Izan ere, herria asko hazi da eta etxebizitza asko eraiki dute Avanzadaren alboetan, bai Getxorako bai Bilborako norantzan.

Beraz, estali beharreko zatia Aldundiak aurreikusten duena baino askoz luzeagoa izan beharko lukeela uste dute auzokideek. Gaur egun, Avanzada errepideak 100.000 auto baino gehiago hartzen du egunero, gehienak Getxotik haragoko biztanleenak. ○

MUSIKA ETA ARDOA ESKUTIK MENDIBILEN

The Basque Irish Connection egitasmoa abiatu du Mendibile Ardo Akademiak, euskal eta irlandar musika fusioaz eta ardoaz gozatzeko. Irailean egin zuten lehen saioa eta abendura bitartean hilean behin prestatuko dute zer edo zer: urrian izango da *Ardoaren ausardia: tendentzia barriak*, tronboi eta piano bikote bategaz; azaroan bertso-trama egingo dute, *Bertsoak eta ardoa: ardoaren errimak*; eta abenduan *Musika eta fusio ardoak* saioa, Kepa Junkera trikitilaria eta Rolando Lunasegaz, proposamen interesgarriak guztiak.

SASKIBALOI TALDE BARRIA UMEENTZAT

Leioa SBT saskibaloia klubak saskibaloia eskola barria antolatu du, “*ume guztiek saskibaloia lantzeko aukera izan dezaten*” eta 6 eta 14 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Astelehenetan eta eguaztenetan elkartuko dira 17:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 19:00etara, Kandelazubieta kiroldegian. Eskola berezi honetan parte hartzeko ume bakoitzak 40 euro ordaindu beharko du matrikula egitean eta beste 45 euro hiru hilabeteen behin. Izena emateko www.leioasbt.com gunean edota 616 717 510 telefonoan azalduko dizute zelan.

Info+: www.leioa.net

IKEA AUZORA IGOGAILUZ JOAN DAITEKE

Azkenean erabilgarri daude Ikea auzora joateko igogailu biak. Ikea, Mendibile, San Juan eta Iturribideren beheko eta goiko aldeak lotzen dituzte, 20 metroko aldea baitago bien artean; 645.940 euro kostatzen dira. Igogailuak orain hiru urte Bidekurtzio zabalduko pasarela osagarri dira; Txomin Aresti eta Kandelazubietako zonaldeakaz konektatzen du Bidekurtzio plaza, oinezkoen mugikortasuna erraztuz. Lau auzoetan 3.000 familia inguru bizi dira.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Marije Cernadas > Trabudu Dantzari Taldeko presidentea

“Gure ohiturak eta kultura mantentzeko ekimenak antolatzen ditugu, ez da folklore hutsa”

Astrabuduko dantza taldeak 35 urte bete du aurten eta urriaren 8an ospatu dute jaialdi bategaz. UK-k egun batzuk lehenago egin zuen berba presidenteagaz. Ehunka lagunek dantzatu dute Trabudun sortu zenetik eta egun ere osasuntsu dabil, ehundik gora partaidegaz. Zorionak eta segi aurrera!

—35 urte mordoia dira, zelan ospatu behar duzue?

—Urriaren 8a aukeratu dugu ospakizunetarako eta egun osoko egitaraua prestatu dugu, taldetik igaro diren eta gaur bertan dabilen lagun guztientzat, auzoko jende askok parte hartu baitu Trabudun. Alkarregaz partekartuko ditugu ekimenak egun horretan. Goizean ume-entzako tartea izango da: puzgarriak ipiniko ditugu eta tailerrak egingo ditugu. Eguerdi aldera hasiko gara gainontzekoak hurbiltzen, auzoan ibiliko gara trikitixa eta musikagaz, kanta-poteoan. Ondotik etorriko da herri-bazkaria, danak alkartzeko. Paella jango dugu eta Athletic Goitiko Taldeak lagunduko digu. Arrastian kale-animazio talde batek girotuko du Astrabudua, eta gauean erromeriak alaituko du plaza. Dantzak erakusten dituzten talde horietako bat



Ekitaldi asko antolatzen du Trabuduk: Olentzero, Inauteriak, Musikalean e.a.

izango da, gu dantzariak izanik, denetan parte hartuko dugu. Aurten ez dugu dantza erakustaldirik eskainiko, erromeria parte-hartzaileagoa izango da. —Zenbatek dantzatu du Trabudun? —Askok eta k. Orain 108 dantzari dago, baina seguruenik 300dik gora lagun igaro da taldetik. Gehienak Astrabuduarak izan dira, baina kanpotik ere etorri da lagun asko: Sondika, Bilbo, Lamiako, Erandiokoak e.a. —Etorrin asko etorri da auzora bizi-

tzen, zuen lanak lagundu du euskal kultura mantentzen? Zer ekarri dio Trabuduk auzoari? —Gauza asko, ez bakarrik folklorea. Gure ohiturak eta kultura mantentzeko bestelako ekimenak ere antolatzen ditugu: Olentzero, Santa Ageda, Inauteriak antolatzen ditugu, Dantzari Egunean parte hartzen dugu, auzoko jaietan e.a. Musikalean jaialdia ere antolatu dugu urtetan. Eta aurrera jarraitzeko asmoz, ume asko daukagu-eta. o

Extremaduratik bihotzez Astrabuduan izango da Extremadurako Astea urriaren 16ra arte



Getxo kaleko 3.ean dago Extremadurako Etxea

Leon, Extremadura, toki askotatik iritsi da jendea gurera, baita Astrabudura ere. Extremadurako Etxeak urtero antolatzen du Extremadurako Astea, batetik hango kultura eta gastronomia erakusteko auzokideei, bestetik ohiturak euskal kulturagaz partekatzeko. Urriaren 16ra arte luzatuko da, dagoeneko erakusketa bat ikus daiteke urtean zehar garatu tailerretan egindako lanakaz. Gainera, hilaren 8an, Extremadura-Euskadi Truke Azoka eta urdaiazpiko-mozketa erakustaldia egin zuten. Urriaren 11n hitzaldi bitxi bat izango da zezenketari buruz: “Zezenketa Eus-

kadin”. Eztabaida mamitsua sor liteke, duda barik. Biharamunean Erandioko Udal Musika Bandak kontzertua eman- go du Josu Murueta plazan, 12:00etan. Arrastian, barriz, antzerkia eskainiko dute Kultur Etxean. Hilaren 13an ere beste hitzaldi bat entzun ahalko da, Menpekotasun Legeari buruz oraingoan. Urriaren 15ean dantza erakustaldia egingo dute, eta 16an, kontzertua izango da astea biribil- tzeko. Astrabuduko Getxo kalean da Extremadurako Etxea, 3. ean. Informa- zio gehiago jaso dezakezu 944 671 512 telefonora deituz. Ondo pasa! o

ATXAZPEREN ASTE MIKOLOGIKOA
Ohiko Aste Kultural eta Mikologikoa egingo du Atxazpe Mendi Taldeak udagoienagaz batera, urteko lehen perretxikoak erakusteko, urriaren 17tik 23ra. Erakusketak eta proiektzioak tartekatuko dituzte. Hilaren 21 arte erakutsiko dituzte Argazki Lehiaketan egindako irudiak, eta 22an, perretxikoak batuko dituzte biharamunean erakusteko. Proiektzioei dagokienez, izango dira: 18an David Atelaren *Goi-mendi hurbilena* erakutsiko dute, 20an Koldo Zubimendiren *Broad Peak*. Erandio zeruan, eta 21ean, Sergio Fernandez-en 7 *desiertos*.

ZER DA HAIKU BAT? PARTE HARTU GURA?
Ba al dakizu Haiku bat idazten? Zer den ere ez? Japoniar jatorriko poema laburra duzu Haikua: hiru lerroko poema txikia da, lehena bost silabakoa, bigarrena zazpikoa, eta hirugarrena, bostekoa (5-7-5): “*Ur tantak hostoz hosto jauzika. Arbolako trapezistak*”. Udalak lehiaketa antolatu du. Ez dauka titulurik, ez erimarik, eta askotan puntuazio markarik ere ez. Zure haikuak bidal ditzakezu lehiaketa@erandioko-udala.net helbidera azaroaren 11 baino lehen; liburu sorta eta tablet bat irabaz ditzakezu.
Info+: www.erandio.net

ORGANO KONTZERTUA ANDRA MARI ELIZAN
Ezaguna da Erandiogoikoako elizako organoa, kontzertuak ematen dituzte bertan. Hurrengo izango da urriaren 16an, domeka, 12:00etan eta doan. Organoaren Bizkaiko Lagunen Diego de Amezua Elkarteak antolatu du, Alberto Saez eta Casandra Alvarez Castellanak joko dituzte sei pieza klasiko. Bizkaiko instrumentuen egungo egoeraz kezkatuta zegoen organo-jotzaile talde batek sortu zuen elkarte, musikarekiko zaletasunak bultzatuta, izan ere, haien iritziz arbasoek utzitako ondare garrantzitsua da musika.



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

XVIII. MENDEKO SOPELARI BURUZKO HITZALDIA

Sopelako Turismo Zerbitzuak bigarren urtez jarraian Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituen Europako Ondare Jardunaldietan parte hartuko du. Horien baitan hainbat jarduera antolatu dituzte. Urriaren 19an, esaterako, *“Reorganizando la anteiglesia. Sopelana en el siglo XVIII”* hitzaldia entzungai egongo da Kurtzion, 19:30ean, Juan Manuel Cembellinen eskutik. Halaber, antzeztutako bisita gidatua antolatu dute urriaren 16an, 11:00etan, Meñakotzen. Urriaren 23an, barriz, Munarrikolanda mendira bisita gidatua egingo dute goizeko 09:00etan Urko aparkalekutik, bertako tumuluak eta Burdin Gerrikoaren aztarnak ikusteko.

OLENTZERO BATZORDEA SORTZEKO BILERA

Uda igaro barri dugun arren denboragaz prestatzen hasi gura dute Sopelan Olentzero batzordeak. Antolakuntza lanetan eta ospakizunetan parte hartu gura duten sopeloztarrek horretarako aukera izango dute. Hitzordua urriaren 14rako jarri dute, arrastiko 19:00etan Kurtzio Kultur Etxean.

TANIA PAYO GAZTEAREN ERAKUSKETA KURTZION

Urriaren 3tik 23ra erakusketa barria izango da Kultur Etxean. Tania Payo Barrikako gazteak lehenbizikoz bere argazkiak erakutsiko ditu. 25 irudik osatutako bilduman, emakumeak dira protagonista. Bestalde, zinema proiektzioak ere antolatu dituzte Kultur Etxean. Genero Ikuspegiko Zinearen barruan, *“La vida empieza hoy”* pelikula ikusgai egongo da urriaren 13an, 17:30ean. Itzartuk antolatzen du aipatutako zinema-zikloa. Halaber, hurrengo egunean *“Glup”* pelikula eskainiko dute 19:30ean, doan. Amaitzeko, Potxin eta Patxin pailazoak Kurtziora helduko dira urriaren 23an, arrastiko 18:00etan, hiru euroren truke.

Gazte sortzaileen bila
Ekaineko topaketen ostean, **badatoz Izarren Distiraren kasting-ak** eta erakustaldia



Azaroaren 12an erakustaldia egingo dute Kurtzio Kultur Etxean

Urduñan ospatu ziren Sormen Topaketan ostean, badatoz Izarren Distira gazteentzako lehiaketaren kasting-ak eta erakustaldia. Uribe Kostako Man-komunitateak antolatuta, kantatu gura duten gazteek euren trebezia erakutsi beharko dute hautaketa probetan: urriaren 19an Gorlizen izango da proba eta urriaren 20an, barriz, Urdulizen. Parte-hartzaile guztiek irakasleen laguntza izango dute euren ikuskizunak fintzeko. Amaiera erakustaldia, bere aldetik, Sopelako Kurtzio Kultur Etxean izango da azaroaren

12an. Bertan izango dira Revolta Permanent rap taldeko kideak, eta doako kontzertua eskainiko dute.

Era berean, Revolta Permanent taldearen bideoklipean extra parte hartu gura dutenek, info@izarrendistira.com helbidean izena eman beharko dute. Aurtengo barrikuntzarik nabariena gazteek bideoklip, film labur zein bes-telako bideoak aurkeztu ahal izango dituztela da. Bideo-kamerak eta MP5-ak jasoko dituzte txapeldunek. ○

Info+: www.youtube.com/watch?v=gvkpZS-6n1Y

Beñat Uriarte > *Habitantes de la cuesta* elkarte

“Gero eta afizio handiagoa dago Uribe Kostan longboard-agaz”



Downhill jaitsiera izan da elkarte barriaren lehen ekimena

Txirrindularien orde longboard-ak ibili ziren irailaren 24an Sopelako bidegorriaren zati batean. Egun horretan ‘downhill’ txapelketa antolatu zuen *Habitantes de la cuesta* elkarte sortu barriak, eta Beñat Uriarte antolatzaileetako batek azaldu duenez, oso pozik lotu dira izandako parte-hartzeagaz.

—**Elkarte**a zelan sortu zen?

—Orain urte bi Landaluze kaleko mal-dan lotzen hasi ginen hainbat gazte, justu Azkorriantzan doan eta moztuta dagoen errepide zati horretan. Longboardagaz harremana genuen, eta txapelketa sortzeko ideia bururatu zitzaigun; batez ere, bidegorriak txirrindulari barik ikusteko, batzuetan arriskutsua izaten baita txirrindulariak eta gu aldi berean aritzea.

—**Eta aurten** ‘downhill’ txapelketa antolatu duzue...

—Bai, aurtengoa lehenengo urtea izan da. Elkarte horregatik sortu genuen, laguntzak jasotzeko. Txapelketa ‘Sope-

lana downhill’ deitu da; hori longboard modalitate bat delako, mendi jaitsierak hain zuzen. Halaber, arrastian ‘slalom’ ere izan genuen (konoen arteko proba) eta ‘slides’ (derrapeak). Gurean ibiltzen ez diren beste leku batzuetako zaletuak alkatzea eta ezagutzea izan da helburua, longboard-agaz ibiltzeko beste leku batzuk ezagutzeko e.a.

«56 lagunek parte hartu du txapelketan, espero genuena baino gehiagok»

—**Parte-hartze** aldetik zelan joan da?

—Balorazio oso positiboa egin dugu. Guk muga 50 parte-hartzailetan jarri genuen, eta 56 etorri ziren, espero genuena baino gehiago, beraz oso pozik. Eskualdeko eta Euskal Herriko parte-hartzaileetaz gain, Bartzelonatik, Kantabriatik... etorri dira. Uribe Kostan ere gero eta afizio handiagoa dago longboard-agaz. ○

Info+: <http://vimeo.com/sopelanadh>

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- *Taldeak, enpresak eta partikularrak*
- *Eskolaz kanpoko ekintzak*
- *Maila guztiak*
- *Ingelesa 3 urtetik aurrera*
- *Talde txikiak*
- *Ingaterran egonaldiak*

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK
KONSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE,OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.


ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- *Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa*
- *Irakaskuntza eta hezkuntza*
- *Informazioa eta partaidetza*
- *Eleaniztasuna*
- *Esperientzia eta barrikuntza*

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

ANTZERKIAN ARITZEKO LAGUNAK BEHAR DITUZTE

ACADAE Berangoko antzerki taldeak berangozarrei deia zabaldu die antzerkian aritzeko. Arte Eszenikoen Lagunen kultur elkarteak adierazi duenez, edozein adineko herritarrak ondo etorriak izango dira. Izena emateko 946 680 157 telefonora dei dezakete edo zuzenean Fernando Ansoleagaz harremanetan jar daitezke. ACADAEn parte hartzen duten lagunek elkartearen antzezlanetan aritzeko aukera izango dute. Igaz, esaterako, Jesusen Pasio Bizia ez zen antzeztu Berangon, parte hartze faltagatik. Aurten, antzezleak bilatzeko deia luzatu gura izan dute.

AHOLKULARITZA ETA PODOLOGIA ZERBITZUAK NAGUSIEN ETXEAN

Ikasturte barriagaz batera Nagusien Etxeak ere bere jarduerakaz hasi da jo eta su. Ohiko ikastaroetaz gain (tai-txi, gimnasia eta areto dantzak), bestelako zerbitzuak ere eskainiko dituzte. Esaterako, herriko nagusiek eskura izango dute podologia eta aholkularitza zerbitzuak. Gogoratu behar dugu beharrezkoa dela batean zein bestean alde z aurretik erreserba egitea. Podologia zerbitzuari dagokionez, zazpi euro ordaindu beharko dira, erreserba egiterako orduan. Aholkularitza juridikoa, barriz, doakoa da eta telefonoz eska daiteke hitzordua. Halaber, kantatzea gustoko dutenek Beti Aurrera abesbatzan parte hartzeko aukera dute.





AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Lantzarteko landa, ezbaian Berangoko udalbatzak zelaian etxebizitza tasatuak eraikitzeko proiektua geldiarazi du



80 etxebizitza tasatu eraiki gura ditu Udalak landan

Lantzarteko zelaia eztabaida sortzen jarraitzen du Berangon. Irailaren 29ko udalbatzak atzera bota zuen Lantzarteko landan etxebizitza tasatuak eraikitzeko proiektua. Bilduk (4), PPk (2) eta EBk (1) zazpi boto batu zituzten proiektua- ren kontra; EAJk (5) eta PSEk (1), barriz, sei.

Landa saltzeko egitasmoa aurreko legegintzaldian onartu zuen Berangoko Udalak. Maiatzaren 12an antolatutako udalbatzan, 4 milioi euroren truke landa Azpiegiturak S.A.U. enpresari saltzea adostu zuten, bertan 80 etxebi-

zitza tasatu eraikitzeko. EAJk eta PSEk bozkatu zuten alde. Hainbat auzokidek, baina, helegitea jarri zioten udalbatzaren akordioari, prozeduran hainbat akats zegoelako. Irailaren 29ko udalbatzak aintzat hartu ditu aipatutako helegiteak, eta beraz, proiektua geldiarazi dute. Anabel Landa alkatearen iritziz, udal- batzaren akordioa “kaltegarria da, gazte- entzat etxebizitza merkeak eraikitzea” eragotzen duelako. Oposizioaren iritziz, “auzokide gehienak landan eraikitzearen aurka azaldu dira”, eta bestelako alterna- tibak badirela baieztatu dute. o

Carlos de Diego > Alde zaharreko webgunearen sortzailea

“Webgunearen bidez Alde Zaharra bultzatu eta giroa sortu gura dugu”



Urriaren 5ean aurkeztu zuten webgunea, Goñi Portalen egindako aurkezpenean

Alde Zaharreko giroari bultzadaxoa emateko asmoz, ekimen barritzailea sortu du Carlos de Diego plentziarrak: www.cascohistoricoplentzia.com webgu- nean Alde Zaharreko historia, jarduerak, komertzioak e.a. agertuko dira. —Zelan sortu da Alde Zaharrari buruzko webgunea sortzeko ideia? —Alde Zaharreko jendeagaz berbetan, askotan komentatu dugu asteburuetan badela giroa, baina lanegunetan lokartu- ta dagoela. Eta Alde Zaharra bultzatzeko webgunea sortzea pentsatu nuen, giroa sortzeko, eta jendeak ezagut dezan. Izan ere, jendea Plentziko zubitik pasealeku- ra doa, eta gero hondartzara, baina ez Alde Zaharrera. —Eta zelan bultzatu giroa webgune baten bidez? —Hiru arlo bultzatuko ditugu batik bat: kultura, komertzioak eta ostalaritza. Horiek dira herrietan giroa sortzen

dutenak, jendea alkartzen dutenak. Komertzioek euren lekua dute webgu- nean, eta kulturak ere izango du: muse- oa, Kultur Etxea, liburutegia, eliza... Informazio asko egongo da, baina infor- mazio hori modu atseginean azaltzen saiatuko gara. Denetarik egongo da: gizarte gaietako informazioak, turismo

«Nik euskarria jarri dut soilik, orain jendeak elikatu beharko du»

kontuak, foroak e.a. Plentziako ekimen guztiak agertuko dira, baina Alde Zaharra bereziki bultzatu gura dugu, alboratuta dagoen gunea delako. —Parte-hartzeko aukera egongo da? —Behar-beharrezkoa da jendeak parte- hartzea. Nik euskarria jarri dut soilik, orain jendeak elikatu beharko du eta ekarpenak egin. o

Info+: www.plentziacascohistorico.com



GETXO 2
AKORDATEN NAZ
UK

Martikoena 16,
2. solairua
Algorta (Getxo)

Alangoko
Osasun Zentroaren alboan

Urbe Kostako aldizkariaren ekoizpena 

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96





irati
OPARIAK MODA GAZTEA

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com



Abant

Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Ikaskuntzaren Zailtasunak
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 Ionia 48991 (Algorta-Getxo)
TF. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

EZ GALDU AUKERA, IZAN
ZAITEZ BERBALAGUN!

Euskaraz barra-barra egin gura duzu? Berbalagunakaz ikasturte honetan ere horretarako aukera izango duzu. Urrian hasiko dira antolatzen hainbat herritan. Izena emateko 605 773 541 telefonora edo berbalagunuribekosta@hotmail.com helbidera jo beharko duzu. Euskara plazara ateratzeaz gain, jende barria ezagut dezakezu berbalagun taldeakaz! Erdu!

PLENTZIA ETA GORLIZ,
ZERBITZUAK BATERATUTA

Gastuak gutxitzeko helburuagaz, Plentziak eta Gorlizek hainbat zerbitzu bateratuko dituzte aurrerantzean. Kultur Etxeko tailerrak, esaterako, alkarregaz antolatuko dituzte, eta tarifa berdinak ezarriko dituzte herri bietan erroldatutako lagunentzat. Etorkizunean antolatuko dituzten ekimen kulturalakaz egutegi bateratua eratuko dute. Garbiketa eta zabor-bilketa zerbitzuak bateratzeko asmoa ere iragarri dute.

GORLIZKO IGERILEKUAK,
BERTAN BEHERA

Gorlizko Udalak igerilekuak eraikitzeko proiektua bertan behera uzteko asmoa iragarri du. Arantza Etxebarria alkateak jakinarazi duenez, proiektuaren aurrekontua “gehiegizkoa” da, 11 milioi euroko kostua duelako, eta Udalaren urteko aurrekontua, barriz, sei milioikoa da. Instalazio horien mantenimenduaren kostua ere garestia izango litzatekeela gaineratu du.

MANKOMUNITATEA

Autoak partekatzeko zerbitzua abian da!



Zazpi auto egongo dira erabilgarri (horietatik bost hibrido), eskualdeko zazpi lekutan

Ukanauto ibilgailuen erabilera partekatzeko zerbitzu barrizaila martxan jarri da Uribe Kostako Mankomunitateko herrietan. Eskualdeko eta eskualdetik kanpoko herritarrek zazpi auto izango dituzte euren esku (horietatik bost hibrido), asteko zazpi egunetan 24 ordutan.

Herritarrek autoa ezinbestekoa denean bakarrik erabiltzea da egitasmoaren helburua. Horrela, noizean behin autoa erabiltzen duten lagunek, ez dute autoa erosteko

beharrik izango. Gainera, Mankomunitetetik nabarmentzen duten legez, Ukanauto zerbitzua erabilita dirua aurreztuko dute, eta gainera ez ditu aparkalekuak, aseguruak, mantenimenduak e.a. kezkatuko. Autoak erraz eta berehala eskura daitezke: eskualdeko zazpi puntutan egongo dira, eta urteko kuota ordaintzeaz gain, kilometro eta orduak ordaindu beharko dira. Alta emateko, web orrira jo beharko dugu. ○

Info+: www.ukanauto.com

Urr. 7 - Urr. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ANTZERKIA

LEIOA

- **Todo para el alma y todo para el cuerpo.** Urriak 13, 19:30ean. Kultur Leioan. 3 euro.
- **Pinocchio.** Urriak 16, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.
- **Menú del día, dantza ikuskizuna.** Urriak 20, 20:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

GETXO

- **Udamina (Gaitzerdi).** Urriak 14, 21:30ean. Algortako Geltokia plazan. Doan.
- **Kontularien kluba.** Urriak 14, 19:00etan. Villamonteko Kultur Etxean.
- **Oilaskoetxea (Malas Compañías).** Urriak 15, 13:00etan. Algortako Geltokia plazan.
- **Maniatik@s (Organics).** Urriak 15, 20:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Aurrez 8 euro eta bertan 10 euro.
- **Libertia (Hortzmuga).** Urriak 16, 13:00etan. Algortako Geltokia plazan. Doan.
- **Leihotik mundura (Kukubiltxo).** Urriak 16, 18:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 4 euro.
- **Beldurraren etxea (Hipo eta Tomax).** Urriak 23, 13:00etan. Areetako Geltokia plazan. Doan.

BERANGO

- **Afrikako ipuinak.** Urriak 15, 19:00etan. Berango Antzokian.



Los colores de la montaña filma hilaren 26an emango dute

► **Jardunaldiak**

Kolonbiari buruzko jardunaldiak Getxon

Hainbat ekimen izango da Kolonbiari buruzko jardunaldietan urriaren 17tik 29ra, Algortako Kultur Etxean. Lehen egunean *Volver a nacer* dokumentala emango dute eta Amazoniari buruzko erakusketa hasiko da. Urriaren 19an solasaldia egingo dute Ivan Forero Madrilgo *Justicia por Colombia* elkarteko kideagaz, Kolonbia eta Espainiaren arteko harreman historikoei buruz. Hilaren 26an, barriz, *Los colores de la montaña* filma emango dute, eta biharamunean, Nelson Calderonek kontatuko ditu ipuinak. Urriaren 28an Rosario Vazquezek kontatuko ditu Kolonbiako mitoak, eta 29an, gastronomia tailerra eta Kolonbiako dantza erakustaldia izango dira.

• **Non:** Algortako Kultur Etxean • **Noiz:** Urriaren 17tik 23ra

ZINEMA

BARRIKA

- **Supertramps.** Urriak 8, 18:00etan. Kultur Gunean.

SOPELA

- **Glup.** Urriak 15, 19:30ean. Kurtzio Kultur Etxean.

BERANGO

- **Txirri, Mirri eta Txiribiton.** Urriak 16, 18:30ean. Berango Antzokian.

GORLIZ

- **PK3 Pinotxo 3000.** Urriak 22, 19:00etan. Teresianon.

ERAKUSKETAK

SOPELA

- **Tania Payoren argazkiak.** Urriaren 23 arte. Kurtzio Kultur Etxean.

GETXO

- **Amazonia.** Urriaren 29 arte. Algortako Kultur Etxean.
- **Bosteko.** Urriaren 31 arte, Algortako Torrene aretoan.

LEIOA

- **Euskal Herriko disko-formako estelak.** Urriaren 30 arte, Kultur Leioan.

GORLIZ

- **Argazki lehiaketaren irudiak.** Hilaren 24tik aurrera. Erakusketa aretoan.

BESTEAK

LEIOA

- **Txixtiburruntzi Eguna.** Urriak 8, Lamiako auzoan.

LEMOIZ

- **Euskeraz olgetan.** Urriaren 24 arte astelehenero, 17:00etatik 19:00etara, Armintzako portuan.

BARRIKA

- **Irakurketa suspertzeko tailerra.** Urriak 15, 18:00etan. Liburutegian.

SOPELA

- **Hitzaldia: Sopela XVIII. mendean.** Urriak 19, 19:30ean. Kurtzion.

GORLIZ

- **Izarren Distira galarako hautaketa-proba.** Urriak 19.
- **Berbalagun programaren aurkezpena.** Urriak 10, 19:00etan. Teresianon.

URDULIZ

- **Izarren Distira galarako hautaketa-proba.** Urriak 20.

ERANDIO

- **Sexu aholkularitza.** Urriak 21, 18:00etatik 20:00etara. Drogamenpekotasun gelan.

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



SATISTEGI
CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]



Akuilu barik

Elortzako jaien egitarauaren baitan, ekimen barritzailea prestatu du aurten Urdulizko Jai Batzordeak. Ohiko idi, asto edo zaldi probak antolatu beharrean, herriko sei “super-indartsu” jarri zituzten harriari tiraka, Laukizko sei “indartsuren” aurka, desafioan. Euria desafiatu zuten zaletuen aurrean, azkenean urduliztarrek eroan zuten txapela, estu eta larri ibili ziren arren. Animo, mutilak!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Behiek trenari

bezala, Ibarberangon

Eskualdea haziz doa antza, bizilagunei dagokienez behintzat. Gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen ari dira han eta hemen, zelai asko integratzen ari da herrietan. Horren adierazle dugu Berango eta Getxo artean zabaldu behar ei duten metro geltoki barria. Omen diogu, ez baitakigu noizko, aldamenean etxeak egiten dituztenerako agian? Bien bitartean filmetako geltoki huts horietakoa ematen du, han kokatuta, ezeren erdian. Aldameneko bizilagunak eta metroko bidaiariak zur eta lur daude, egoera ezin ulertu, behiek trenari bezala begira...

ASIER MENTXAKA

[berbetan]

Umorez hasi du elkarrizketa Telmo Esnalek (Zarautz, 1966), zelan bestela. Donostiako Zinemaldian bere bigarren film luzea aurkeztu zuen irailean, *Urte berri on, amona!*. Amona, Maritxu alaba, Joxemari suhia, Kintxo... familia “dramak” barre algaraka kontatzen dizkigu Esnalek, bere nortasunagaz bat datorren estiloan. Oporretarako dirurik ez eta uda etxean ezkutatuta ematen zuten Etxebestetarrakaz ezagutu genuen luzean lehenengoz. Euskal Herrian eta euskaraz egindako umorearen “label” propioak zaleak dituela erakutsi zuen lehenengoagaz. Bigarren lan luze honek ere zapore ona utzi dio. Hala ere, zine aretoetako ikusleen oniritzia falta zaio oraindino. UK-koon gomendioa: hurbil zaitetz txarteldegira euskal zinearen izarrak itzal ez daitezen.

Telmo Esnal

Argiak, kamera... grabatzen!

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Argazki Press**

—Noiz esaten du Telmo Esnalek: *“Ama, aita: zine zuzendaria izan nahi dut”*.

—Ez zen dena batera etorri. UBI ikasketak egiten ari nintzela ikusi nuen Ikus-entzunezkoen mundua gustuko nuela. Hasiera batean kamara izateko grinarekin hasi nintzen Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan. Han berehala konturatu nintzen zineaz hitz egitea gehiago interesatzen zitzaidala, istorioak kontatzea. Han hasi nintzen zuzentzeko grina pixka bat edukitzen.

—Andoainen ikasi eta gero nola izan ziren zuzendari hastapenak?

—Han irakatsi zidaten pelikulak nola dauden grabatuta, ideiak lantzen... pixkanaka ikusi nuen gustatzen zitzaidala. Ni Andoainera ideia batekin joan nintzen eta beste batekin atera. Ikasketak bukatu ahala lan egiten hasi nintzen, ekoiztetxe batean “pelmada” nahiko eman ondoren. Produkzio lanetan hasi nintzen.

—Publikoak ezagutu dituen zure lehenengo lanak film laburrak izan ziren.

—Zinean lanean hasi nintzen eta zuzendari izateko grina hori ahaztu nuen. Zine

barruan nengoen, laguntzaile; Asier Altunarekin pelikula bat egiten ari gine-la esan genuen: “Zergatik ez gara gu istorio bat egiten ahalegintzen?”. Hortik “Txotx” sortu zen, gure lehenengo film laburra. Haren ondoren “40 ezetz” egin genuen. Nik orduan utzi nuen film laburren kontua eta Asier “Topeka” egiten gelditu zen. Hurrengo lana “Aupa Etxebeste!” izan zen; horren ostean film laburrekin saiatu nintzen berriro eta “Taxi” egin nuen.

—Film laburrak eta luzeak egin dituzu. Zer da errazago ideiak labur azaltzea

“Guk egiten dugun komediak ez dauka antzekotasun handirik Madrilen egiten dutenarekin”

edo luze aritzea?

—Ideia bakoitzak eta istorio bakoitzak bere neurria dauka. Batzuetan labur egiteko istorioak okurritzen zaizkit, askoz gehiago garatu ezin daitezkeenak. Besteetan istorio luzeagoak okurritzen zaizkit. Idazleei bezala, batzuetan testu motza eta besteetan eleberria bururatzen


zaie, gurea ere antzera izaten da; istorioak ematen digu neurria.

—Zure istorio gehienetan umorea da ardatza. Hor sentitzen zara gusturen?

—Ez dakit. Ni ere halakoa naiz. Umorea eta gainera gazi-gozo xamarrek diren istorioak dira nireak; nire estiloa izango da, ez dakit. Ez dut nahita egiten; istorioak berak ematen dit nondik jo. Egia da istorioa geuk jasotzen dugula, beraz... estiloa izango da.

—Euskal Herrian zein kanpo lan egin duzu. Umore bera egiten da Euskal Herrian edo hemendik kanpo?

—Guk egiten dugunak Madrilen egiten den komediarekin ez dut uste antzekotasun handirik daukanik. Guk denontzat oso ezaguna den egoera hartu eta muturreraino eramaten dugu; hortik ateratzen da istorioa eta umorea. Ez naiz kapaz esateko zein ezberdintasun dagoen zehatz-mehatz.



Baina guk pertsonaiak oso bertakoak eta oso errealak aurkezten ditugu eta egoerak ematen digu umorea. Batzuetan dialogoekin lantzen saiatzen gara, baina gehienetan egoerak ematen du umorea. Bilatu baino, istorioarekin zerikusia daukan umorea lantzen dugu, pertsonaietatik eta egoeratik datorrena. —**Bigarren film luzea aurkeztu barri duzu. Lehenengoa “Aupa Etxebeste!” izan zen. Zelako oroitzapenak dituzu garai horietaz?**

—Oso onak. Egia esan sentsazio oso antzekoak ditut pelikula honekin. Badakit istorioa ez dela bera, honetan umoreaz gain beste gauza batzuk jotzen ditugulako. Suspensea, thriller eta trama ere sartu dugu, konbinazio nahiko potentea eginez. “Aupa Etxebeste!”-rekin momentuan boom bat bezalakoa izan zen. Honekin ere, kalera irten eta jendeak esaten dit: “Ez dut ikusi, baina esan didate kristorena dela.”. Sentsazioa oso antzekoa da.

—**Gustura gelditu zinen garai hartako boom-arekin?**

—“Aupa Etxebeste!”-rekin bai, mundu guztiarengana iritsi zelako. Ez dakit honekin zer gertatuko den, baina sentsazioak oso antzekoak ditugu.

—**Donostiako Zinemaldian “Urte berri on, amona!” estreinatu barri duzu. Zein izan da lehen inpresioa eta horren ostea?**

—Harrera ona eduki du. Kritika onak jaso ditugu eta jendeari asko gustatu zaion pelikula da, hemen inguruan behintzat. Ez dakigu kanpoan zer gertatuko den. Gustatzen ari da pelikula, baina guk beti arazoak ditugu gure zine txikiarekin kanpoan konpetitzeko. Orain adibiez, Mr. Bean dator bere pelikularekin eta hori medio guztietan agertuko da. Gurean ez gara kapaz promozioa egiteko. Baina lasai nago, ikusten ari den jendea gustura gelditzen ari

delako; horrek lasaitasun handia ematen digu gure lanarekiko.

—**Berriro familia giroa, umore beltza, euskal aktoreak... ur horietan mugitzean seguruago al zaude?**

—Askotan ez gara konturatzen egiten dugunaz kazetariak galdezka hasten diren arte. Egia da Euskal Herrian familiak indarra duela eta familian bizi iza-

rarekin: non kokatu, nola kontatu istorioa... Bai; egia esan ume txikia bezala pasa dut pelikula egiten.

—**Jatorrizko bertsioa euskaraz izango da beste behin ere. Horrek ateak zabaldu edo itxi egiten ditu?**

—Denetik izan liteke. Agian hemen zabaltzen ditu, euskal munduan behintzat. Baina etxetik kanpora eramateko

“Askotan ez gara konturatzen egiten dugunaz kazetariak galdezka hasten diren arte”

ten ditugula momenturik goxoenak eta gogorrenak. Horregatik polita da familia aukeratzea harremanen mundua, gorrotoa eta hainbat gauza ateratzeko. Beharbada horregatik aukeratzen dut.

—**Ikusi ez dutenentzat aurrerapentxo bat amonatxoari buruz...**

—Pelikula koktel bat da. Umore beltza, supensea, trama... dena nahastuta eta sentsazio berriak sortu nahian. “Aupa Etxebeste!” komedia hutsa zen eta honek beste pauso bat ematen du, zerbait gehiago eskaintzen duela uste dut.

—**Pelikula sortzeko prozesu guztia kontuan izanda zerk markatu zaitu gehien?**

—Oso ondo pasa dut bai idazten, bai grabatzen eta bai montajea. Agian gu txien gustatzen zaidana bukaerako pro-

askoz zailagoa da. Baina gure apostua da, gu euskaldunak gara eta zinea gure hizkuntzan izan nahi dugu. Niretzat hizkuntza pelikula batean ez da oso garrantzitsua. Zineak badu bere lengoaia eta lengoaia horretan hizkuntza bigarren mailan geratzen da. Hori sortzaile bezala esaten dut; gero badakit zenbaterako garrantzia daukan euskaldunontzat zinea euskaraz egiteak. Horregatik egiten dugu, nahiago dugulako gure hizkuntzan lan egin. Baina pelikula kontatzerakoan ni behintzat ez naiz horrekin geratzen.

—**Zelan ikusten duzu Euskal Herrian egiten den zinema**

—Zinemaldian ikusi dudanagatik uste dut euskal zinean proposamen oso ezberdinak daudela, bai euskarazkoan

“Zineak badu bere lengoaia eta lengoaia horretan hizkuntza bigarren mailan geratzen da”

zesu hau da, pelikulaz hitz egin beharra... Beste prozesu guztietan oso ondo pasatzen dut; gehien kostatzen zaidana nire buruaz hitz egitea da. Beste guztian ume txikia bezala pasa dut pelikula egiten. Aktoreekin lanean momentu oso onak pasa ditut; baita rodajea, kame-

baita erdarazkoan ere. Baina euskaraz behintzat gero eta jende gehiago dago zuzendari eta horrek aberastasuna dakar, istorio ezberdinak ikusteko. Gero... denetik egongo da, edozein lekutako zinean bezala. Egongo dira gauza hobeak eta pattalagoak, baina

hori nahitaezkoa da. Behintzat ikusten da pelikula ezberdinak daudela eta jendea badagoela zinea zuzentzeko.

—**Eta aukerei dagokionez? Badago euskal zinea sortzeko aukerarik?**

—Zinemagintzaren merkatua gero eta okerragoa da. Ezberdintasun handia dago guk “Aupa Etxebeste!” aurkeztu genuenetik gaur egunera. Krisiarekin zinera gero eta jende gutxiago joaten da. Beldur pixka bat badaukagu ez dakigulako zer gertatuko den. Baina, beste aldetik, sortzaile bezala uste dut proposamen oso interesgarriak eta aberasgarriak ari direla sortzen eta horrek ere esperantza ematen digu. Euskal zinea badagoela ikusten dugu, gero eta hobe eta interesgarriagoa. Horrekin geratu behar dugu.

—**Buruan proiekturik bai?**

—Beti daude gauzak, baina nik nahia-go izaten dut jaitsi, bukatu pelikula honekin, burutik atera, ikusi nola joan den eta pentsatu zer gehiago eman dezakegun, ez errepikatu moldeak. Saiatuko naiz beste pauso bat ematen; ideiak egon badaude, baina oraindik ez dakit nora jo. Mantso joaten naiz nere

—**Ikusleentzako azken mezurik...**

—Kontatzen du bi pertsona helduren borroka amaigabea. Pertsona heldu bi, baina jarrera nahiko umekoiarekin; batetik bestera eramaten gaitu istorioak espero ez ditugun bideetan barrena. Animatu nahi dut jendea zinera joan dadin; askotan ematen du jendea zine-ara ez badoa katearen zati bat puskatzen

“Euskal zinemagintzan proposamen interesgarriak sortzen ari direla uste dut; horrek esperantza ematen digu”

buruko asuntoeekin. Ez naiz ez dakit zenbat ideia idatzita dituzten horietakoa. Nahiago dut itxaron eta ikusi pelikulak zer meta duen.

dela eta bertan behera geratzen dela. Horregatik animatu nahi ditut. Ondo pasako dute, nahiz eta istorio gogorra izan reposo ona dauka, merezi du. ○

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail..... Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bateuro

Kontu zenbakia (20 digito)



Sareak


Argazkilari hasibarrien lanak ez ezik, eskarmentua duten argazkilariak ere ekarri ohi ditugu UK-ko orrietara.

Elker Azqueta (Madril, 1973) berangoztarra, adibidez, 1999. urtetik dabil argazkilaritzan beharrean. Leioako kanpusean Kazetaritzan lizentziatu ostean, freelance legez egin du behar; arkitektura bulegoetan, hiri-altzariakaz etab.


Bilduma honetako argazkiek, eremu ezberdinetakoak diren arren, ezaugarri amankomuna dute: sareak, naturan sortzen diren loturak, hirigintza arloko elementuen arteko harremanak etab.

Argazkiak: **Elker Azqueta**

<http://www.flickriver.com/photos/fotografiaelker>







Kukullaga Goikoa > Hamabost egunez atzeratu da baserriaren kaleratzea

Baserria, lurrak eta ogibidea galtzeko zorian, 25.900 euroko kredituagatik

Irailaren 27an mobilizazio eguna antolatu zuten Berangon. Kukullaga Goikoa baserriko familiak baserria hustu behar zuen egun horretarako. Baina ez zen hala izan. EHNEk eta eskualdeko 18 eragilek egindako presioari

Langabezia, murrizketak, kaleratzeak... Krisiak hamaika eragin sortu ditu gurean, eta batzuek kontrakoa uste duten arren, Uribe Kostan ere krisialdiaren aurpegirik gordinena sufritzen ari gara. Horren erakusle dugu, barbarako, orain aste batzuk Plentziako *La Parra* eraikin mitikoan bizi ziren bizilagunen kaleratzea. Azken adibidea Berangon topatu dugu, Larrañazubin hain zuzen. Kukullaga Goikoa errotan bizi diren baserritarrak euren baserria,



XVII. mendekoa da Kukullaga

lurrak eta ogibidea galtzeko zorian daude, 2006. urtean eskatu zuten 25.900 euroko kredituari aurre egin ezin diotelako. Hasiera batean banku bati eskatu zioten

kreditua, XVII. mendeko baserri babes-tuaren teilatuan lanak egin behar zituzte-lako. Baina bankuak ez zien eman, eta

Kredituak %5eko interesa zuen, %29ko atzerapenagaz, eta hiru hiletan itzultzeko

azkenean prestamista bati eskatu zioten. EHNE baserritarren sindikatuak salatu duenez, prestamistak gehiegizko baldintzak ezarri zituen kredituan, adineko baserritarren ezjakintasunaz baliatuz: %5eko interesa, eta atzerapenengatik %29ko interesa, hiru hilean itzultzeko. Berme gisa, gainera, 540.000 eurotan baloratua dagoen baserria eta lurrak jarri behar izan zuten.

Kredituaren epea igaro zenean, presta-



Traktore, lasto-fardo eta 70 bat lagunez osatutako barrikada egin zuten Kukullagan

mistak baserritarrak salatu, eta baserriaren jabetzagaz geratzeko izapideak hasi zituen. Bost urte geroago, Kukullaga husteko agindua jaso dute. Irailaren 27rako, euren arbasoen etxea izan den baserria utzi behar zuten. Sindikatuaren ustez, *“adineko pertsona hauek era honetako gaien inguruan duten ezjakintasunaz aprobetxatu*

dira, jakinik oso zaila izango zitzaizela baldintzak betetzea eta ondorioz, baserria eta lurrak galduko zituztela. Iruzurra eta lukurreria egoera bat da”.

Hori dela eta, baserritarrei babes eskaintzeko asmoz eta baserriaren hustea eragozteko asmoz, mobilizaziorako deia egin zuten EHNEko kideek. Eta eran-

tzuna jaso zuten. Izan ere, Berangoko 14 eragilek eta Uribe Kostako beste lauk bat egin zuten sindikatuaren deialdiagaz, eta Larrañazubin bertaratu ziren irailaren 27an. Berangoko metro geltokian hitzordua jarri eta gero, kotxe-karabana egin zuten goizeko bederatzieta Kukullagaraino. Baserriaren aurrean traktore, lasto-fardo eta 70 bat lagunez osatutako barrikada egin zuten, idazkari judizialen lana oztopatzeko helburuagaz. Eta lortu zuten: kaleratzea hamabost egunez atzera-

“Iruzurra eta lukurreria egoera da, euren ezjakintasunaz aprobetxatu dira”

tu da, urriaren 11ra arte hain zuzen. Atzeratzea lortu bada ere, kaleratzearen arriskua Kukullagan jarraitzen du. EHNEk negoziaketarako deia egin dio prestamistari, baserritarrak kale gorrian gera ez daitezen. Kukullaga Goikoako bizilagunak zorrak eta interesak ordaintzeko prest agertu dira, baserrian bizitzen jarraitzeko aukera duten bitartean. Prestamista, baina, ez da momentuz horretarako prest agertu. ○

Karlos Martinez de Morentin eta Nekane Jurado> Elkartzen

“Ez da amesgaizto bat, diseinu-ekonomikoaren ondorioak dira, eta hauek dira bere fruituak”

—Krisiaren eraginez, gero eta gehiago ematen ari dira horrelako kasuak, ezta? —Frustrazioa, nekea eta lotsaren intimitate biluziarekin, zenbaki hotzak nahastan dira. Bizkaian, 2011ko lehen hiruhilekoan (90 egun argazki barik), adibidez: 339 kaleratze, 853 enbargo, 158 hipoteka-betearazpen... Guztira 1.350 familia bizkaitar (15 egunero) utzi dituzte euren jabetza eta itxaropen barik, umiliatuta. —Eta zer dela eta helden ari gara

horrelako egoetara?

—2009. urteko abenduan Elkartzenek honakoa zioen: etxebizitza baten finantziazio-kostua (interesak), 30 urtetara, hasierako prezioa %80 igotzea esan nahi zuen; eta 50 urtera, barriz, %149-ko gorakada. EAeko etxebizitza baten batazbesteko prezioa 350.300 eurokoa da. Interes horiekin prezioa 630.540 eurotan bihurtuko litzateke 30 urtean eta 872.247 eurotan 50 urtean. Diru-

sarrerei dagokionez, eskatzaileen %52,7 21.000 euro baino gutxiago jasotzen ditu. Lehenengo etxebizitza behar dutenek, euren hilabeteko kreditua ordaintzeko gehieneko gaitasuna 466 euro/ hilerokoa da gizonezkoen kasuan, eta 446 euro/hilerokoa emakumezkoetan. Zatiketa single batek argi uzten digu nola gizonezkoek 112,7 urte behar dituzten batazbesteko prezioa duen etxebizitza eskuratzeko eta emakumezkoek, aldiz,

117,8 urte. Beraz, kredituaren atzean prekarietatea dagoela ikus dezakegu. Aberastasuna gero eta enpresa gutxiagoren eskuetan geratzen ari da; horiek dira globalizazioaren arauak. Etekinak hiru bidetik lortzen dituzte: soldata-kostuak jaitsiz (lan-prekarietatea handituz), enpresa eta kapitalaren zergak jaitsiz (babes soziala ahulduz) eta behar berriak sortuko dituen “merkatua” handituz (ekoizpen masiboa xurgatuz). Kontsumoaren handitzea, errenten jaitsiera errealekin, kredituaren erabilera masiboarekin bakarrik egin da. Krisiaren aurreko bost urteetan, Euskal Herriak zorpetze pribatua birritan biderkatu zuen, biharko diru-sarrera prekarioak

gaur kontsumitu zituelako. Eta egun batean esnatu, eta tailerrak ixten hasi ziren, pentsioak jaisten, eta kreditu berrien iturriak ixten. Baina amesgaizto bat dela pentsatzen jarraitzen dugu; bihar esnatu eta krisiaren aurreko egoerara bueltatuko garela pentsatzen dugu. Ez da amesgaizto bat, diseinu-ekonomikoaren ondorioak dira eta hauek dira bere fruituak. Zenbat eta lehenago ulertu, lehenago hasiko gara landa barriak ereiten. —Eta etxetik kanporatu nahi bagaituzte... nora jo dezakegu laguntza eske? —Eta zergatik onartu etxetik kanporatu behar gaituztela? 2008. urtean kaleratu genuen *“La Euskal Herria ¿de quien?”*

liburuan egoera honi alternatibak eskaintzen genizkion, adibidez, Euskal Herriko etxebizitza publikoaren institutua sortzea (alokairu sozialeko etxebizitzekin hornituko dena). Nahi duten herritarrek euren etxebizitza institutuari eskaintzeko aukera izango dute, eta institutuak hipotekaren balorea beregain hartuko du, familiaren aldeko kreditua aitortuz (ordaindutakoaren kopuru berdina izango litzateke, hasieran ordaindutako kapitalari ordaindutako maileguen kuotak gehituz, kapitala eta interesak), etab. Etxebizitzaren lagapenak alokairu sozialean etxebizitza okupatzeko eskubidea emango luke, herritarraren egoera sozioekonomikoaren arabera, etab.



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

• 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

• Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

• Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

• Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Bertako zinema bultzatuz

Udal zinema aretoen sarea **eratu du Zineuskadi elkarte** sortu barriak



Euskarazko zinema ere egongo da ikusgai

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako udal zinema aretoen sarea osatu barri du Zineuskadi irabazi-asmorik bako elkarte jaiobarriak. Eusko Jaurilaritzaren Kultura Sailak bultzatuta, bere helburu nagusia *“euskal ikus-entzunezko sektorearen garapen estrategikoa sustatzea”* da. Norabide horretan, Mikel Toral eta Veronica Sanchezek gidatutako proiektuak laguntza eskainiko die sektoreko enpresa eta profesionali.

Elkartearen lehenengo ekimena zazpi udal zinemen artean sarea osatzea izan da, eta bertan Uribe Kostako udal zinema batek parte hartuko du; Leioakoak hain zuzen. Tolosak, Ordiziak, Arrasatek,

Andoainek, Barakaldok, Elorriok eta Zornotzak osatuko dute sarea Leioakoa-gaz batera, eta danak Europa Cinemas sare europarrean integratuko dira. Sarea koordinatzeaz eta dinamizatzeaz arduratuko da Zineuskadi, komunikazio eta sustapen ekintzak sortzeagaz batera.

Oraingoz zazpi Udalek osatuko dute sarea, Leioakoa barne

Era berean, bertako zinema bultzatu gura dute Zineuskadiko lagunek, eta hainbat ideia planteatu dituzte aretoak bizibarritzeko: besteak beste zikloak antolatzea, beste herrialde batzuetako zinema-institutuakaz elkarlanean; dokumentalak proiektatzea, ‘Hileko dokumentala’ egitasmoaren bidez; ‘Ki-muak’ film laburren programan parte hartzen duten sortzaileen lanak ezagutzera ematea e.a. Euskarazko zinemak bere tarte izango du, ‘Zinema Euskaraz’ programagaz akordioa egingo baitute.

Zineuskadiren arabera, jendea zinemetara erakarrita, bertako ekoizpen etxeek irabaziak lortuko dituzte, eta modu honetan, industria indartuko dute. Gainera, aretoek laguntza jasoko dute trantsizio digitalerako. ○

Info+: www.zineuskadi.eu

Marmoka Baltzak > Guaitorock Jaialdiko txapeldunak

“Kukutzako finalaurrekoan, harrituta lotu ginen, bozkatu gintuen jendea ezezaguna zelako”



Hurrengo kontzertuak urri akabuan eskaintzeko asmoa dute

Txorimalo Gaztetxean ospatu zen irailaren 17an Guaitorock Jaialdiko finala, eta Algortako boskote batek eroan zuen txapela. Lander ‘Gufi’, Javi ‘Koko’, Endika, Peio eta Zigor ‘Judas’ dira Marmoka Baltzak taldearen kideak. Azken honek bota dizkigu erantzunak. —Zelan sortu zen taldea sortzeko ideia? —Urte eta erdi daroagu alkarregaz jotzen. Kokok lehen bazeukan talde bat, eta beragaz berbetan, lokal bat alokatzea pentsatu gendun. Hor hasi zen ideia sortzen. Gero UK tabernan, mozkorre-

tan, Endika ezagutu gendun, Patada en la Papadan eta DAREN ibili dana. Gu hirurok bost hilabete egon ostean, Piña hasi zen abesten hasikeran, baina laga zuen. Gero Lander lotu zen, eta azkenik Peio, Dislexia taldekoka.

—Eta bat-batean, taldea sortu zenetik urte bi igaro ez direnean, Guaitorrock-eko txapeldunak zarie. Espero zenuten?

—Irabaztea, ez... Finala Algortan izan zenez agian espero genuen. Gehiago harritu gintuen Kukutzako finalaurrekoa pasa gendunean, bozkatu gintuzte-

nak jende ezezaguna zelako. Harrituta lotu ginen, eta oso pozik gauz! Orain, sariari esker, maketa grabatuko dugu Tio Pepegaz, Urdulizen.

—Zer topatuko dugu disko horretan?

—Musika arina, 80. hamarkadako hardcorea gehienbat. Baina taldekide bakoitzak bere estiloa deko: Endikak punk-a batik bat, Peiok metala, Kokok reggaea eta 60. hamarkadako rock and rolla...

«Maketan musika arina eta 80. hamarkadako hardcorea landuko dugu»

—Orduan apur bat danetarik izango du diskoak...

—Bai, baina oinarri batzuk danok konpartitzen ditugu, horregatik moldatzen gara. Kontzertuetan 13 bat kanta jotzen ditugu, hiru bertsioak dira (BAP, Corazón del sapo eta Bad Brains taldeenak). Tio Pepek sei abesti grabatuko dosku, eta guk beste hiru pagetako negoziatuko dugu, danak grabatzeko. Internetetik debalde jaisteko aukera egongo da. Le-trak Landerrek idazten ditu, gai sozio-politikoak landuz.


—Esan barik utzi duzu zer edo zer?

—Pornosaurio taldeagaz harreman oso ona dugu, belaunaldi berekoak gara! ○

Info+: www.myspace.com/baltzak

diskoak

Musika kaxa
Ain 1
Musikherria



Gipuzkoako Ain 1 taldeko lagunek euren lehenengo lan luzea kaleratu barri dute: “Musika kaxa” (MH078). Estilo eta musika gustu ezberdinetatik edaten duten pertsonak dira, eta bakoitzak bere ekarpena egin dio taldeari, musika kontzertuak baino, ikuskizun oso eta ezberdina landuz. Hamabi abestiz osatutako disko xumea.

Kalte
Kalte
Egileak ekoizle



‘Kalte’ taldearen izen berberagaz atera du bere bigarren diskoa Usansoloko laukoteak. TNT estudioan grabatu dute, baina gainontzeko dana euren esku egon denez, taldearen izen bera jarri diote lan barri honi. Abiadura handiagoko kantak batu dituzte, arinak eta energia handikoak, baina baladak ere egin dituzte.

Bitz
Bitz
Egileak ekoizle



Melodiaz betetako punk-rocka egiten du Oñatiko Bitz taldeak. Udan kaleratu zuten euren estreinako lana, euren ekoitzi eta argitaratua. Hamalau abestietan punk-rocka nagusi bada ere, aniztasuna gordetzen jakin dute: surf-punk doinuak, psychobilly ukitua e.a. Clash, 999 edo Buzzcocks bezalako taldeen eragina igartzen da disko osoan.

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alargoeta 8 (Eskol Horria kalearek bar)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkeztan baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Kafe zaporedun antzerkia

Cafe Bilbao tabernak antzerkirako testu laburren bilduma argitaratu du euskaraz

Bilboko Zazpikaleetako historiaren lekuko izateaz gain, bere historia ere idatzi du Mikel Martinez aktoreak zuzentzen duen Cafe Bilbao Tabernak. Ehun urte beteko ditu aurten; mendeurrena behar bezala ospatzeko hainbat ekimen jarri ditu martxan, kafe eta ardo artean kulturak bere tartetxoa izan dezan.

Horien artean dago “Teatro Laburreko Sariak. Cafe Bar Bilbao 2001-2011” liburuen argitalpena. Tabernak berak hamar urtez antolatu duen Teatro Laburreko Sarietako irabazleen testuak argitaratu dituzte Cafe Bilbaok eta Artezblai argitaletxeak elkarlanean. Danera, 18 antzerki lan argitaratu dituzte: liburuxka batean euskarazko hamar eta bestean gaztelarazko zortzi lan.

Izen ezagunen euskarazko hamar antzerki gidoi batzen ditu liburuxkak

Euskarazkoen artean, Jon Urraza, Aizpea Goenaga, Galder Perez, Pako Aristi edo Oier Guillanen antzerki gidoiak daude, besteak beste.

Liburuxkak argitaratzeaz batera, lehiaketaren aurtengo edizioaren barri eman dute. Antzerki gidoiagilei diru saria emateaz gain, lanak taula gainera eroate-



Cafe Bar Bilbao Taberna

ko aukera ematea bilatzen du lehiaketak. Aurten sariketaren bederatzigarren edizioa izango da; idazlanak bidaltzeko epea azaroaren 30era bitartean egongo da zabalik. Formatu txikiko lanak aurkez daitezke soilik, 30 minutu ingurukoak. Aurten ere, gaztelaniazko eta euskarazko modalitateak egongo dira. Sariak 1.400 eta 1.200 eurokoak izango dira, euskarazko onenarentzat eta gaztelaniazko onenarentzat, hurrenez hurren.

Tabernaren web orrian orain arte sarituak izan diren lanak zein sariketaren inguruko informazioa aurki dezakezu. ○


Info+: www.bilbao-cafebar.com

liburuak



Zwei Frauen (Bi emakume)
Joxean Agirre
Elkar

Bere bizitzatik pasa diren emakuek izandako maitasun istorioak deskribatzen ditu protagonistak. Horiek literaturarekiko pasioari esker ezagututako idazleak alderatzen ditu. Agustín Zubikarai beka irabazi zuen Joxean Agirrek eleberrir honi esker.



Nire turbantearen sekretua
N. Ghulam / A. Rotger
Erein

Egilea bera da eleberrir honetako protagonista. Nadia Ghulam Kabulen (Afganistan) jaio zen 1985. urtean. Ezbeharrez jositako umezaroa bizi izan zuen. Gaur egun Espainian bizi eta ikasten du. Kultura arteko talken istorioa lehenengo pertsonan kontatua.

[kirola]

Urduliz eta Erandio, ring-ean

Basakick taldea kick-boxing harrobia sortzen ari da; umeen talde bi sortu dituzte



Basakick-eko gimnasionetan 150 bat lagunek entrenatzen dute

Gero eta jarraitzaile gehiago batu ditu kick-boxing-ak Uribe Kostan, Erandio eta Urdulizko Basakick taldeak egindako lanari esker. 2008. urtean sortu zen Basakick, Jabi Perez eta Itzi Onaindi irakasleek eskolak ematen zituzten gimnasioak batu zituztenean. Urdulizko taldea 2010. urtean sortu zuten, eta Perezen iritziz, gimnasio urduliztarra da egun gehien hazten ari dena: “Ordutegiak handitu beharko ditugu”.

Eskolak ematen dituzten gimnasio danak kontuan hartuta, 150 bat ikasle ari dira egun kick-boxing-ean entrenatzen, eta horietatik 15 aktiboan dauden lehiakideak dira. Mutilek ez ezik, neskek ere interesa agertu dute kontaktu-kirol honekiko: Urdulizen, esaterako, kirolarien %30-40 emakumezkoak dira. Aurten, gainera, umeen taldeak sortu dituzte bai Urdulizen bai Erandion. Umeenak kontakturik bako entrenamenduak dira, eta ziurtatuta utz dezakete kick-boxing-aren etorkizuna Uribe Kostan.

Basakick taldearen helburu nagusia

mota honetako kirol irakaskuntza, sustapena eta zabalpena da. Jabi Perezek nabarmendu duenez, “jendarteak oraindino aurreritziak ditu mota honetako kirolekiko”. Kick-boxing-a bortizkeariagaz lotzeko joera dago, eta Perezen ustez, hedabideek erantzukizun handia dute horretan. “Kontaktu-kiroletan ezin da edozein

“Lehiatzeko beharrezkoa da diziplina, pazientzia, osasuntsu egotea...”

aritu. Lehiatzeko beharrezkoa da diziplina, pazientzia eta iraunkortasuna izatea, osasuntsu egotea, ezaugarri fisiko eta batez ere psikologiko egokiak...”. Salatzen duenez, horiek ez dira normalean kick-boxing-agaz lotzen diren baloreak.

Halan da be, mota honetako kirolek gero eta zaletu gehiago dituzte. Perezen arabera, adibidez, “La Casilla bezalako guneetan 3000 edo 4000 zaletu batzen dira”. Kick-boxing-a ezagutu gura baduzu, Uribe Kostan baduzu aukera! ○

Info+: www.basakick.net

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Andoni Txasko > Martxoaren 3ko biktimen elkarte

“Lan baldintza duinez gain, eskubide eta askatasunak aldarrikatzen ziren”

1976ko martxoaren 3a, Gasteiz. Greban zeuden hainbat langile eliza batetik irtenarazi eta tirokatu zituen poliziak, bost langile hil eta ehundik gora zaurituz. Andoni Txasko Martxoaren 3ko biktimen elkarteko kideak urriaren 11n eskainiko du hitzaldia Sopelako Plaza Beltza gunean.

—Hitzaldiagaz batera erakusketa ere ikus daiteke Plaza Beltzan, zer erakutsi duzue?

—Martxoaren 3ko gertaerak ez zeuden isolatuta, eta beraz, hori baino zabalagoa da erakusketa: Frankismo garaiko askatasun falta errepresioa eta langile borrokak biltzen ditu, M3ko gertaerak eta ondorengo lan guztia ere, egia, justizia eta ordaintza bilatuz. Bestelako osagarriak ere erakusten ditu: liburuak, dokumentalak, urteetako borrokaren lekukotasunak eta 2006ko gertaerak; manifestazioan Ertzaintzak kolpatu eta atxilotu gintuen eta Madrilgo Audientzia Nazionalera bidali zuen kasua; han absolbitu gintuzten. Erakusketa hasi eta egun batzuetara emango dugu hitzaldia, jendeak hitzaldian zalantzak azal ditzan.

—35 urte joan dira, arduradunik ez da epaitu baina M3ko biktimenzako indemnizazioen proiektua onartu dute. —Lortu duguna gure ekimenez izan da, esfortzu oso handiagaz. Gertaera haiek ezin justifika daitezke: terroristak gu ginen eta ez eraso zigutenak. Historiak buelta eman dio horri eta arrazoia eman digu pixkanaka: EHUK bermatutako txostenak egin dira Valentin de Foronda Historia Institutuaren bitartez, eta Gasteizko Legebiltzarrean ikerketa komisia eratu zen; hark idatzitako txostenean



Info+: www.3demarzo.org

ardura Espainiako orduko gobernuburuaren esku ipini zuen. Justizia eta ordaintza alorrei dagokienez, ordea, gabeziak daude. Justizian zabaldu ditugun bideak fruiturik gabekoak izan dira, sumarioak artxibatu dituzte gertaeren errudunak zeintzuk izan ziren zehazteko elementu nahikorik ez zegoelakoan: epaileek diote-

“Kriminalizazioak darrai eurek ezarritakoaren aurka borrokatzen duen edozein mugimenduren aurka, orduko eredu bera da”

nez, hilketak gertatu zirela onartu dute, baina ez, ezin jakin dezakete nork bota zituen tiroak. Burla hutsa da hori guretzat. Estatu Terrorismoaren biktimak ez dituzte aitortzen eurek izendatutako terrorismoaren biktimen legeetan. Baina ekinean jarraituko dugu.

—Lehen aipatu duzu, orain bost urte

ere pairatu zenituzten polizien kolpeak. —M3ren izaera ez dagokio bakarrik langileei, orduko borrokak gaur dirau, eskubide guztien urraketak salatzen dira, lan, justizia edota adierazpen askatasunaren aurkakoak direla. Lan baldintza duinez gain, askatasunak eta eskubideak aldarrikatzen ziren orduan, beraz orain

eskubideok mantendu behar ditugu eta askatasunak galtzen ez utzi. Zentzu horretan salatu genuen 2006an bi presoren kasua, eta Ertzaintzak basatiki eraso zigun. Kriminalizazioak darrai eurek ezarritakoaren aurka borrokatzen duen edozein mugimenduren aurka. Orduko eredu berak jarraitzen du gaur. ○

Fredi Paia

Gure musikerik

Ez garez gitxi pentsaten dunok taberna eta jai-giro duztiten bozgorailuk iminte herri kulturen kontrako golpe gogorra ixen dala. Geur botoi beteri emonta entzun gengi gustaten dakun kantzino ha, ganera, grabazino estudiok deukezan inbetu barrikez, norberan aurren jota baizen zati beteko kalidade hoben.

Horrexegaiti, alderdi beteti, eta gure gizartek herri-kulturari dekotsen estimu eskasagaiti; besteti, gitxi direz gure kale eta lantzarretan musike jotzen ikusten duzen herrikidek. Eskualden, ostantzen, nahie musikeri badeku. Euretaringo askok musike etxeko bakardaden bizi dau, kalera jotzen urteteko lotsaz. Eta gure edadekok dineuden lez: *lotsa okin ber da, baie ez ibili. Lotsabako ixete ondo dau, lotsatxarreko ixete da txarra.*

Bozgorailuk baztar duztik betatu eudezan arten norberak jo ber ixeten iaun musike, ezpabere ez zan egoten-eta.

Gure edadekon jakintza batzeko iten ixen duzen beharretan argi ikus du sano ezbardine zala gure arbasok musikeaz eukeen hartu-emona. Maila ezbardinetako musikerik egozan, baie musike modu aktibon bizi euden lehengok. Txarribodatan, ezkontzatan, jai-egunetako jatorduten... asko ziren anis botileri koilaraz eragin, balden eperdi panderu bihurtu, lapikon tape txindata in.... eta kantateko jasa eukeenak. Musike jote jaian zeti normal modun bizi euden, parte-hartu beharra egoan musike egongo bazan. Ordun botoi bateri emonta ez egoan jairik. Praktikera eroten euden Gestalt musikologi-eskolak dinona: objektu duztik direz musika-tresna, baie bako-txari bere teknike topa ber dako.

Edozelan bere, herritarrek musiken eta kulturen aurren eukeen jarrera aktibo horrez ganera, ia auzo duztiten egoten zan *musikeri* titulutxu irebazite eukan batan bat. Horreek ziren gure arteragokon jantzaldi,



“Norberak jo ber ixeten iaun musike, ezpabere ez zan egoten-eta”

jai eta jolasak animetan eudezanak. Ahiztu barik, XX. gizaldin akabura arten herriko bandek, Plentzin eta Getxon batez bere, funtzino garrantzitsu okiten ixen deudela.

“Musike jote jaian zeti normal modun bizi euden, parte hartu beharra egoan musike egongo bazan”

Soinulerin arten Luis Bilbao “Solture” urduliztarra, Tomas Arrizabalaga “Sitse” plentzitarra, Kepa Arrizabalaga pandereteru handin aite zana, Pablo Apraiz berangoztarra, Rufino Arrola Andrakako errementari eta bere maisu ixeneko Onaindi “Pinu” erandioztarrak aitetu gengiz, beste hainbat


baegozan bere. Tarteko, oraindino lantzen behinen Anton Larrabeiti pandereteruez topa gengin Jose Luis Elordui soinu-leri barrikoztarra. Pandereterun arten Pruden Aspiazu urduliztarra, Manu Ugarte plentzitarra eta Eusebito Roura sopeloztarra ibiltzen ziren plazarik plaza, hamakatxu andrak etxeko jaiten pandero jotzen baiaun bere.

Horreekaz batera Tuterati etorriteko arraza ijituko morroi betek Jaime berangoztarrari irekatsitako *kainubere* perkusino instrumentu ezeune ixen da guren. Berangoko Goikoerrotako gizonak jotzen eban sei zuloko *flaute*, Gorlizeko Uresarantzeko *tronpeteru* eta beste hamaka musikerigaz batera.

Txistulerik, asko eta onak oki duzen lez, beste baterako itxiko duz. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitez.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com

La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07

berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

txakoli
motaTx.
txakolina

leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

UNAI
TABERNA JATETXEA

WWW.UNAITABERNA.COM

94 466 16 61
ALANGOBARRI KALEA 3 (ALGORTA)

CAFETERIA
COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80

JAN-TOKI
ORMAZTEGUI

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA

Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Gutizia biribila

Lau gaztaz osatutako trufa almendratua



Pintxo honek ez du inoiz hutsik egiten Portu Zaharreko barran

Gildaren ostean, Portu Zaharra tabernan arrakasta handia duen pintxoa ekarri dugu gurea oraingoan: lau gaztagaz osatutako trufa almendratua. Gutizia biribil-biribila da, bai formagatik bai zaporeagatik. Gazta gustuko duenarentzat benetan mokadutxo gustagarria, ahora sartzean lau gazta motagaz osatutako zapore-bonbak ahoan eztanda egiten duelako.

Pintxoa egiten hasteko, lehenik eta behin bolatxoari forma eman beharko diogu. Horretarako, lau gazta mota elkartuko ditugu. Horietatik, batek gutxienez gazta 'gogorra' izan behar du, alegia, gazta urdina edo roquefort. Besteak zapore 'leuneko' gaztak izango dira, ahuntz-gaztak adibidez. Forma eman (eskuan sartze-

ko modukoa) eta arrautza-irinetan pasatuko dugu. Horren ostean, ehotutako almendran sartuko dugu, almendra zatitxoak bolatxora lot daitezen, eta olio oso berotan frijituko dugu. Zartaginean olio kantitate nahikotxo bota behar dugu, bolatxoa ondo frijitzeko.

Ondoren, irasagarria batez lagunduta, ogi-xerra baten gainean jarriko dugu. P.X. txorrotada bat botako diogu gainera (ozpinaren reduzio gozoa da). Amaitzeko, zotz batez sastatu beharko dugu, bestela bolatxoak ihes egingo digu... eta horrelako altxorrei ezin diegu horren erraz ihes egiten utzi! o

Osagaiak: lau gazta mota, irina, arrautza, almendra, olio, ogia, irasagarria eta P.X. ozpina.

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 FM



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Gemikako azken astelehena bertan dago, txakolin freskoa, gazta eta txorizo goxoa e.a. Lasai, argazkietan ere igarriko duzu usain goxoa. Hartu indarra eta aurrera!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Uluaka igaro duzu uda handik hona, orain bategaz, gero besteagaz... Baina udazkena heldu eta zure zortea hoztu da. Lasai egon, urria ere beroa iragarri dute eta...

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Koadrila konbentzitu eta zinemara joango zarete gura zenuen filma ikustera, baina zeharo aspergarria izango da. Gonbida itzazu izozkia jaten, haserretu orduko.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Aitzurra bai, baina laboretarako dohain gutxikoa zara zu, alperregia akaso? Aldiz, gogotsu jaten dituzu tomate eta piper ederrak. Noiz lagunduko diozu ortuan?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Udazkena iritsi eta hostoak erortzen hasi dira zuhaitzetatik. Zuri ere antzeko zer edo zer gertatu zaizu, triste baino tristeago zabilta. Egin irribarre eta segi aurrera!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zu ere ezkututzen hasi zara, eguzkia laino artean bezalaxe. Lagunak arduratuta dauzkazu, koadrila barriaropa ote duzu? Egiezu betikoei ere kasu, galduko dituzu bestela.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Klasean goiz osoa, liburu eta apunte artean igarotzen duzu arrastia, baina hori ez da batera sanoa. Liburutegitik urten eta haize freskoa hartu beharko zenuke noizbehinka, ito baino lehen.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Lehenengoz kasino batera joango zara, kartetarako doaiak erakustera. Baina eskarmentudun asko dago eta zeneukan diru apurra galduko duzu. Hurrengoan hobeto pentsatu!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Indabetarako sasoi aproposa izango ei da hemendik aurrera eta Tolosaraino joango zara 10 kilo erostera. Baina zer zabilta? Ustelduko ez zaizkizu ba! Hemen ere ale eder eta goxoak badauzkagu!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Meta zeinua ezin egokiago suertatu zaizu, izan ere, zuk ere pilotzen dituzu ardurak eta arazoak meta handia osatu arte. Tentuz ibili, bizkarreko meta lar haz ez dadin.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Landatzen ibili zara uda osoa eta laster jasoko dituzu fruituak: lan arloan, lagunartean, etxean, baita ligatzeko unean ere. Inurriek bezala, apurka baina ziur, zorianak!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Barrio ere ahaztu duzu amamaren urtebetetzea, hori duzu burua! Oraingoan zaila gertatuko zaizu barkamena lortzea eta lore sorta ez da nahikoa izango, saiatu besarkada eta muxu bat ematen.

Udazkenean ere euskarari heldu!

euskara



Maila guztiak ordutegi desberdinetan


netan

EGA larunbat

Algortako Etorbidea 104
48991 Algorta - GETXO

Tf. 94 460 66 71

e-mail: j.a-agirre@euskalnet.net



HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuma

1. Ahaleginak, ahalmen osoz egiten diren saioak. 2. Zeu, zuhaur. Arnas ezak hil. 3. Hegazti mota, kumilo. Trafiko seinalea, gelditzeko agindua ematen duena. 4. Opera batean, bakarlariak abesten duen partea. Leku batean botatzen den arrain janaria, bereziki bakailao arraba. 5. Eskumena. Uranioaren ikur kimikoa. 6. Azkeneko kontsonantea. Zuhaixa mota, milazka. 7. Edan aditzaren izena. Apoaren antzeko animalia ur-lehortar. 8. Fruituei eta barazkiei, sakatuz, ateratzen zaien isurkia. Hitzarmena. 9. Ala. Ura 100 gradutara iristean gertatzen da. 10. Nafarroako mendia.

Goitik behera

1. Nafarroako ibaia, Aragoi ibaiaren adarra. Hitzak ongi ebaki eta ahoskatu gabe mintzatzen dena. 2. Gure. Zalantza. 3. Labainkor, irristagari. 4. Nolako bihurtu. Röntgen. 5. Garai, aldi. Haur. Hirugarren eta bigarren bokalak. 6. Bigarren pertsona. Meatzea, harria. Ipar Euskal Herrian, inguru. 7. Lehenengo bokala. Askotan, maiz. 8. Litzateke, baina guri. 9. Atoian eroateko prestatuta dagoen ontzi. Zeru esferako puntua, behatzailearen lekutik goranzko zutari dagokiona. 10. Mokadu, ahamen. Egitekoa, beharra, eginbeharra.

Soluzioa

A	T	E	N	I	E	R	R	V	L
N	I	K	A	I	R	I	O	D	E
V	N	U	I	I	U	K	U	Z	
L	E	G	I	E	T	V	D	E	
Z	I	H	V	W	V	T	A	R	Z
U	V	H	E	R	U	K	S	E	
V	I	Z	V	W	V	I	R	V	
P	O	T	S	O	L	R	U	K	
O	I	T	I	R	O	R	E	Z	
K	A	L	A	H	A	N	A	E	

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Uribe Kostako zein herrikoak dira gizon-probetan aritu diren super-indartsuak?

> Aurrekoaren erantzuna: Lau
> Irabazlea: **Pedro Guallar**
*deitu telefonoz: 944 911 337

Gazteentzako zein musika lehiaketa ospatuko da urrian?

- **Izarren Distira**
- **Katxiportetak musikari**
- **Haurrak UKntari**

> Aurrekoaren erantzuna: Irailean
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Oinutsik

kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana

Tf. 94 404 74 20

oinutsik@euskalnet.net

SARIA


La Gusana

liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta

Tf. 94 491 14 12

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



ANA MARI NAVARROK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

SAN INAZIO ESKOLA, 1955-56

Ez zen eskola mistoa nahiz eta argazkian nahastuta egon. Atsedenaldira ere, horma handi batek banatzen zituen neskak eta mutilak. Ez ziren ikasgela berekoak, ezta adin berekoak ere; 5-8 urte artekoak edo dituzu ikasle hauek, Getxoko udaletxetik hurbil zegoen eskola publiko honetara joaten zirenak. Orduko heziketa politikarekin (dikadura frankistak aginduta) lotutako zerbait kontatu digute. Neguriko taldetxo bat ez zen ahalegintzen asko Falangeko liburuxka ikasten (buruz ikasi behar zen); ondorioz, askotan zigortua izaten zen taldetxo hau, arrastian, beste ordubete gehiago egotera. Gero berriro galdetu eta etxera. ○

- 1. **lerroa:** ?, Marisa San Pedro, Marilen Peña, M^a Angeles Peña, ?, Miren Bidaurreazaga, ?, Celita Ruiz.
- 2. **lerroa:** Joseba Bidaurreazaga, ?, ?, Bego San Pedro, Miren Peña, ?, ?, ?, ?.
- 3. **lerroa:** ?, ?, ?, ?, Bego Mota, Begoña Ugarte, Ugarte, Pili Peña, Ana Mari Navarro, ?.

[aitormenak]

AITZIBER GARMENDIA > aktorea

“Eskerrak Euskal Herrian ez dagoen prentsa arrosarik”

Argazkia: **EITB**



Defini egizu zure burua berba bitan.

Oso baikorra eta gogotsua.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Beti gustuko izan dut Vladimir Nabocov-en *Lolita* nobela, oso gustukoa dut pertsonaia, ez dakit biktima ala erruduna den. Pertsonaia oso konplikatu da, baina duela 10 urte egingo nukeen.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Irakasle ez, baina umeeekin zerikusia lukeen jarduera batean. Bizitzeko lain emango lukeen eta gustura jardungo nukeen zerbaitetan.

Eta zertan ez zenuke jardun gura?

Ardura handia eskatzen duten lanetan, ez nintzateke sekula izango zirujau edo epaile.

Aitor dezakezun bizio bat?

Arropa eta txokolatea dira nire biziorik handienak.

Musika talderik gogokoena?

Ez nuke bakarra esango, unearen arabera musika mota oso desberdina entzuten dut. Izan daiteke *Francisco alegre* kanta, Berri Txarrak edota mutur-muturreko talde bat.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?

Pertsona nahiko zentzuduna naiz eta kostako litzaidake erokeriarik egitea edo burua galtzea.

Parrandarik politena non? Zergatik?

Herriko festetan, Zaldibian. Gutxitan noa herrira eta xarma berezia topatzen dut, betiko lagunekin eta familiarekin elkartzen naiz. Eta mondejuak daudelako, noski!

Eta zein galderari ez zenioke erantzungo?

Oso erreserbatua naiz nire bizitzarekin, ez nintzateke horretan sartuko; eskerrak Euskal Herrian ez dagoen prentsa arrosarik. ○

LABURREAN— ETBko *Finlandia* saioan ikusten dugu astero Aitziber Garmendia (Zaldibia, 1982), eta ez du lehen esperientzia kameraren aurrean, *Martin* edota *Sorginen laratza* saioetan ere parte hartu du gazteak. Zuzenbidean lizentziaduna bada ere, aktore aritu da gaztetatik; Beasaingo antzerki taldean hasi zen 13 urteaz. Telebistaz gainera antzerkian ere aritu da maiz, oraintsu *Baginaren bakarrizketak* antzezlanaren darabil herriz herri, eta laster, beste bi obra estreinatuko du: azaroan *Wilt* eta abenduan edo urtarilean umeentzako lan bat, Ttanttaka taldeagaz.

zu gabe ezin

ZATOZ eta EGIN



IZENA EMATEKO EPEA: urrian zehar izena eman eta taldeak azaroaren lehen astean lotuko dira.
HARREMANAK ETA INFORMAZIOA: 619 935 541 • 616 885 165 • egizugetxo@gmail.com

www.egizu.org • www.facebook.com/egizu

IZENA EMATEKO TOKIA: Martikoena 16, 2. solairua - Alango (Algorta)

SUSTATZAILEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



Getxo 2011

Urriak 14-23 Octubre



XXXIX

Antzerki
Jardunaldiak

Jornadas de Teatro

14 OSTIRALA-VIERNES

21:30 Algortako Geltokia Plaza

Udamina

Gaitzerdi [euskaraz]

15 LARUNBATA-SÁBADO

13:00 Algortako Geltokia Plaza

Oilaskotxea Malas Compañías [euskaraz]

20:00 Escuela de Música de Las Arenas

MANIATIC@S Organiks

16 IGANDEA-DOMINGO

13:00 Algortako Geltokia Plaza

Libertia Hortzmuga [euskaraz]

18:00 Areetako Musika Eskola

Leihotik mundura Kukubiltxo [euskaraz]

21 OSTIRALA-VIERNES

21:30 Plaza de la Estación de Las Arenas

Anomalia magnética

Markeliñe [castellano]

22 LARUNBATA-SÁBADO

13:00 Plaza de la Estación de Las Arenas

Camping renove Trapu Zaharra [castellano]

20:00 Escuela de Música de Las Arenas

Hienas rellenas Coloniales y Salazones [castellano]

23 IGANDEA-DOMINGO

13:00 Areetako Geltokia Plaza

Beldurraren Etxea Hipo eta Tomax [euskaraz]

18:00 Escuela de Música de Las Arenas

¿Quién ha visto a Dulcinea? Agerre Teatroa [castellano]



bbk²

